IRITZIA: RAXOIREKIN HOBETUKO DIRA GAUZAK ABERTZALEENDAKO /9

BARRUAN, ZURE HERRIKO ALDIZKARIA




Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2003ko irailaren 19a

IV. urtea • 123. zenbakia • DOAN BANATZEKOA



**IÑAXIO OLIVERI**

*"Etorkizunerako hezkuntza molde berriak behar dira"* /7

**KIROLA**

**Atletismo taldea sortu dute urolar eta debagoiendarrek /10**

**Goienka2a**

**'Arrasate Mondragon Irudiak' liburua aurkeztu berri dute**

# Aurrera doaz Soraluze eta Bergara arteko bidegorriko lanak

Soraluze eta Bergara artean txirrindulari eta oinezkoendako egokitzen dihardute garai baten trenbidea izandakoa. Oraingoz Soraluzen egiten ari diren lan horiek ikusten egon ziren atzo, aguena, hainbat agintari, tartean, Luis Mari Oiarbide Garapen Eramangarrirako diputatua.

Irailaren lehen egunean hasi zituzten lehendabiziko faseko lanak. Fase horretan, Soraluzetik Osintxurainoko zatia konponduko dute, 2.360 metro, guztira. Lan horien aurrekontua 413.000 eurokoa izango da, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatuko du. Arduradunek espero dute urria erdialderako lanekin bukatzea. Eguenean bertan, Gipuzkoa bizikletan: 10 ibilbide Gipuzkoa, Araba, Nafarroa eta Lapurdin gidaliburua aurkeztu zuten Zumarragan. /4

## OÑATI

### Arantzazun elkartu dira mundu osoko artzainak

Mundu osoko 50 bat artzain eta aditu elkartu dira egunotan Arantzazun, Artzain Mundua elkarteak bigarren urtez antolatu duen kongresuan. Atzo, eguena, egin zuten kongresuaren inaugurazio ekitaldia. Artzain Mundua elkarteak esku artean dauzkan hiru proiektu aurkeztuko ditu kongresuan: dokumentazio zentroa, artzainaren museo etnografikoa eta artzainen sare digitala. /6

## HEZKUNTZA

### Lehendakaria MUko ikasturte hasierako ekitaldian

Ikusmin handia sortu zuen lehendakariak Arrasatera atzo, eguena, egindako bisitaldiak. Mondragon Unibertsitatearen ikasturte hasierako ekitaldia zela-eta hurbildu zen Ibarretxe lehendakaria Amaia Udal Antzokira. Iñazio Oliveri MUko errektorea eta Anjeles Iztueta Hezkuntza sailburua ere han izan ziren, beste hainbat erakundetako agintariekin batera. /4

ASTEKO GAIA: ATZERRIAN ADOPTATZEAREN ABENTURA /2-3

# Atzerrian jaio arren, debagoiendarrak

Gero eta familia debagoiendar gehiagok erabakitzen dute umea adoptatzea. Gipuzkoan ez dago barne-adopzioa egiteko modurik, eta Txinara, Bulgariara, Ukrainara... jotzen dute ibarreko familiek seme-alaba baten bila. Gurasoendako, une on eta txarrez betetako abentura da adoptatzea. Hainbat gurasok euren esperientzia kontatu diote GOIENKARIAri.



IRATI AGIRREAZALDEGI

Anje, Bulgarian jaioa, eta Izar Han Xue, Txinan, elgetar bezala bizi eta hazten ari dira. Irudian, bata amarekin eta bestea aitarekin.

## DEBAGOIENA

### Arrasateko alkatea, Mankomunitateko presidente

Arrasateko alkate Inazio Lakuntza izango da Debagoieneko Mankomunitateko presidentea datozen lau urteotan. Erabakia hartuta dagoen arren, ez dute presidente izendatuko irailaren 24ra arte. Azkeneko agintaldian Victoriano Gallastegi Bergarako alkatea izan da Debagoieneko Mankomunitateko presidentea. /5







DEBAGOIENA/4-5 • HERRIZ HERRI/6 • IRITZIA/8-9 • KIROLA/10-11 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • BERRI-ZAKUA/19 • DENBORA-PASA/21 • TELEBISTA/22

# Atzerrian adoptatzea, guraso izan nahi dutenen aukera

- Debagoieneko familia bat aitzindari izan zen Ukrainako umeak adoptatzen
- Txinatik, Ukrainatik, Boliviatik, Errusiatik… etortzen dira ume gehienak
- Tramiteak asko azkartu dira, eta urtebete edo bi behar izaten dira adoptatzeko

LEIRE KORTABARRIA

Berri onak ume bat adoptatu nahian dabiltzan debagoiendar guztiendako: Foru Aldundiak zabaldu berri du Txinan adoptatzeko eskaera-zerrenda, joan den martxoan itxi behar izan ondoren. Txinak adopziora emandako umeen kupoa itxi ondoren gertatu zen hori. Orain, uste da Txinak laster hartuko duela erabaki berri bat adopzioa ahalbidetzeko. Berri onak dira, bai; izan ere, AEBen ondoren, Estatuak adoptatzen ditu Txinako ume gehien; eta Gipuzkoan, iaz, herri horretako umeak adoptatzeko 30 eskaera egon ziren. Horietatik, 20 bete ziren. Iaz adoptatzeko bide barik gelditu ziren zortzi familia gipuzkoarrek beste aukera bat dute.

Gipuzkoan, zorionez, ez dago adopzioan utzitako umerik. Hortaz, adoptatu nahi duten debagoiendarrendako, atzerrira jotzea da aukera bakarra. Eta hori gero eta sarriago gertatzen ari da.

#### ARRAZA UGARITASUNA, GURE ZORTEA

Debagoienean, atzerritik umeak ekartzeko joera ez da hain berria; baditu urte batzuk, nahiz eta orain gero eta maizago gertatzen den. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikarako sailak du honen eskumena, eta Txinatik, Ukrainatik, Bulgariatik, Errusiatik, Kolonbiatik… ekarri ditugu gipuzkoarrok adoptatutako ume gehienak. Gurasoei ez zaie axola umea nongoa den; seriotasunaren, azkartasunaren eta fidagarritasunaren arabera aukeratzen dute herrialdea.

Umeen jatorriak sortutako egoera hauek naturaltasun osoz bizi dituzte debagoiendarrek: "Arrasaten arraza eta jatorri askotako umeak ikusten dira, gero eta gehiago, eta hori da dugun zortea. Batez ere umeek ez dute bereizkeriarik egiten", diosku Mar eta Gustavok osatutako bikoteak. Euren seme gazteena, Carlos, Bolivian jaiotakoa da, eta abuztua ezkero dago gure artean. Guraso berriondako, umea non jaioa den gutxienekoa da, eta ez hori bakarrik: euren jatorrizko herrialdearekin harreman normala izan dezaten nahi dute. Amaia mondragoetarraren kasua adierazgarria da: bere seme-alabak lehenengoz etorri zirenetik urteak pasa dira, eta, berak dioskunez: "Euren jaioterriaz egunero egiten dugu berba, hango jostailuak-eta dituzte…".

#### BIDE LUZE BAINA HUNKIGARRIA

Atzerrian adoptatzea errazteko moduak ugaritu egin dira azken urteotan. Adibidez, gaur egun adopzio agentziak daude. Horiek tramiteak egiten dituzte; hala ere, ibarrekoen esperientziak denetarikoak izan dira. "Ez ziguten informazio garbirik eman. Azkenean, beste bikote batzuen laguntzarekin atera genuen aurrera", dio Ukrainan adoptatu duen bikote debagoiendar batek. Arrasateko familia bati, ordea, agentzia batera joateak asko erraztu zizkion gauzak: Kolonbian saiatu ziren, baina guztia bertan behera geratu zen, eta agentziak lagundu zien Bolivian adoptatzen.

Edozein bide aukeratuta ere, luzea -guztia ondo joanda, urte eta erdi edo bi urte- eta, batzuetan, nekeza da adopzioaren bidea, eta ibarreko gurasoek diote "bajoiak" egoten direla, zailtasunek eraginda. Hala ere, emaitzak merezi du, Elgetako ama batek dioen moduan: "Haurdunaldia bezala, emozioz betetako prozesua da".

ADOPZIORA LAGUNTZEKO ELKARTEAK

### Euskal Herrian asko daude, eta laguntza, informazioa... eskaintzen dute

**Lehenengo pauso bezala, adoptatu nahi duen familia batek Foru Aldundira jo behar du. Horretarako, onena da 943 45 77 40 telefonora deitzea, eta han emango dizkiete argibide guztiak. Edozein bide edo herrialde aukeratuta ere, Diputazioarekin harremana ezinbestekoa da. Bestalde, adopziora laguntzeko elkarte asko dago Euskal Herrian. Horietako bat Ana Gillegi eta Iker Irazabal elgetarrek sortu dute: Anichi (Txinako haurren adopzioa) du izena eta 670 42 30 53 da telefonoa. Eta Ume Alaia elkartearen zenbakia da 655 72 69 11.**

ARAZOAK ETA BALDINTZAK

### Bi herrialderen araudiak uztartu behar dira adopzioa ahalbidetzeko

**Txina da kupoa ezarri duen herri bakarra, baina beste zenbait herrialdetan bestelako arazoak daude. Adibidez, Errumania, Bielorrusia, Vietnam eta Guatemalan adopzioa geldituta dago. Kasu batzuetan, prozesua ez da oso fidagarria izaten; edo oso geldoa izan daiteke: Brasil, Bulgaria edo Txileren kasua da. Herri bakoitzak bere baldintzak jartzen dizkie adoptatu nahi dutenei. Umeen jatorrizko herriak umearekiko eta familiarekiko baldintzak jartzen ditu; harrera herriak, familiarekikoak. Bi legediak uztartu behar dira.**

ADOPZIOAK, DATUTAN

### Eskaera kopurua eta adoptatutako umeena hazi egin da azken urteotan Gipuzkoan

**Foru Aldundiko Gizarte Politika Sailak aditzera eman duenez, Gipuzkoan nazioarteko adopzio eskaerak eta adoptatutako ume kopurua hazi egin dira azken urteotan. 1995a ezkero gipuzkoarrok 465 ume adoptatu ditugu. Iaz 87 adingabe iritsi ziren gure lurraldera: besteak beste, Ukrainatik (32), Txinatik (20), Bulgariatik (10), Errusiatik, Kolonbiatik, Boliviatik, Indiatik eta Vietnamdik. Aurten, ekainaren 30a bitartean, 78 eskaera zituen Foru Aldundiak, eta horietatik 29 bete dira. Eskaera gehienak Txinarako egiten dira.**





**CARLOS – URTE 1, BOLIVIAN JAIOA**

Arrasaten bizi da, abuztuaz geroztik, Carlos. Gustavo eta Mar aita-amak eta lau urteko arreba Mireia (argazkian, biak agertzen dira) zituen zain. Izan ere, bere lehen urtebetetzea Arrasaten ospatu du Carlosek. Boliviako umezurztegi batean bizi izan zen ordura arte. “Bolivian, tramiteak nahiko azkar egiten zituztela esan ziguten, eta horregatik jo genuen hara; guri berdin zitzaigun umea nongoa izan”, diote gurasoek. Bikote arrasatear honen istorioak adopzioaren zailtasun guztiak islatzen ditu: lehenengo saiakerak kale egin zien, eta 8 urte behar izan dituzte harik eta umea ekarri arte.



**IZAR HAN XUE – 15 HILABETE, TXINAN JAIOA**

Elgetan bizi da orain Izar Han Xue, eta izenetik igartzen da gurasoek nahi izan dutela alabatxoak bere jatorriarekin harremana gordetzea. “Garrantzitsua iruditzen zaigu bere jatorriaz harro egon dadila, eta ez dezala sentitu Txinan jaio izana gauza txarra izan denik”, diosku bere ama Anak. Debagoienean, Gipuzkoa osoan bezala, Txinatik etortzen dira adoptatutako ume gehienak, eta ibarrean kasu gehiago ere badago. Hori dela-eta, Izar Han Xueren gurasoek Anichi (Txinako haurren adopzioa) elkartea sortu dute, beste familia batzuei informazioa eman eta harreman-gune bilakatzeko.



**ANJE – 3 URTE, BULGARIAN JAIOA**

“Pediatrak esan zigun umezurztegian emandako hil bakoitzarengatik beste edozein ume batekin hiru hilabeteko aldea duela umeak”, dio Anjeren ama Nekanek. Anje joan den astea ezkero dago etxean, Elgetan, eta oraindik ahul dagoela dioskute gurasoek, baina asko jaten duela eta dagoeneko hazi egin dela. Anje ekartzearen prozesua ez zen oso luzea izan: urtebetekoa, gutxi gorabehera. Eurek Donostiako Mimo agentziaren bidez egin zuten, eta esperientzia ona izan da. “Gogorrena da umea ezagutzera joatea, han ikustea, eta handik urtebetera berriro ez duzula ikusiko jakitea”, diote aita-amek.



**ANDONI – 8 URTE, UKRAINAN JAIOA**

Andoniren kasua deigarria da (argazkian, arreba Mirenekin agertzen da); izan ere, hura izan da Euskal Herrira Ukrainatik adoptatutako ume baten lehen kasua. Ama Mari Kruzek honakoa gogoratzen du: “Orduan ez zen orain bezala; orain agentziak-eta daude, baina guk gure kontura egin genuen guztia. Agiriak prestatu genituen hemen, gero Madrilen hainbat tramite egin, eta, Ukrainan, hango emakume baten laguntzarekin egin genuen guztia”. Orain dela sei urte gertatu zen hori. Mari Kruzek diosku oraindik ere adoptatu gura duten bikote asko joaten zaizkiela, argibide eske.

LASAGABASTER
LASAGABASTER
www.lasagabaster.com
Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55




GOIATZ ARANA

Irailaren lehen egunean hasi zituzten Soraluze eta Osintxu arteko trenbide zatia egokitzeko lanak.

# Aurrera doaz Soraluze eta Bergara arteko trenbidea konpontzeko lanak

*Garapen Eramangarrirako diputatu Oiarbide egon zen atzo Soraluzen*

GOIATZ ARANA / AINTZANE IRIZAR

**Garapen Eramangarrirako diputatu Luis Mari Oiarbide Soraluzen izan zen atzo, eguena. Soraluze eta Bergara artean bizikletendako eta oinezkoendako egokitzen dihardutuen bideko lanak ikusten egon zen hantxe.**

Txirrindulari eta oinezkoendako egokitzen dihardute garai baten trenbidea izandakoa. Lan horiek ikusten egon ziren atzo hainbat agintari, tartean, Luis Mari Oiarbide Garapen Eramangarrirako diputatua eta Victoriano Gallastegi Bergarako alkatea. Bisita horren arrazoia da Mugikortasun Eramangarriaren astea dela.

Irailaren lehen egunean hasi zituzten lehendabiziko faseko lanak. Fase horretan, Soraluzetik Osintxurainoko zatia konpondu-ko dute, 2.360 metro, guztira. Lan horien aurrekontua 413.000 euro-koa izango da, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatuko du.

Arduradunek espero dute urria erdialderako lanekin bukatzea. Construcciones Zubiri enpresak dihardu lan horiek egiten. Arduradunen esanetan, lanek ez dute aparteko zailtasunik, trenbidea izandako bidea aprobetxatu dute-eta bidegorria egiteko. Ibilbide osoan tunel bakarra dago, baina hori ez dute egokituko; izan ere, merkeagoa eta errazagoa da aldamenetik bide berria egitea, tuneleko zatia konpontzea baino.

Bigarren fasean, Osintxu eta Bergara arteko trenbide zatia egokituko dute. Oraindik esleitu barik daude bigarren faseko lanak, tarte horretan beste hainbat proiektu ere aurrez ikusita daudelako: Mekolaldeko araztegia, ur kolektorearen lanak eta industri garapenerako gune berri bat. Bigarren fase horrek 4.240 metro izango ditu, eta 455.500 euroko aurrekontua. Bergara eta Soraluzeko Udalen artean ordainduko dituzte gastu horiek.

Bidegorriak bi errai izango ditu: bata, bizikletan doazenendako eta bestea, oinezkoendako.

**TXIRRINDULARIENDAKO GIDA**

Eguenean bertan, *Gipuzkoa bizikletan: 10 ibilbide Gipuzkoa, Araba, Nafarroa eta Lapurdin* gidaliburua aurkeztu zuten Zumarragan. Kalapie taldeak egin du gidaliburu hori, Gipuzkoako Diputazioak halaxe eskatuta. Bizikletan ibiltzearen abantailak eta egin ditzakegun hainbat ibilbide azaltzen dizkigu gidaliburuak, tartean, Debagoienean, Soraluze eta Antzuola artean, egin dezakegun ibilbide bat. Momentu honetan konpontzen dihardutuen trenbide zatia, hain zuzen ere, hartzen du ibilbide horrek. 24 kilometro ditu eta mendiko bizikletarekin egin beharrekoa da.

Gidaliburu horren helburua da bizikletaren erabilera bultzatzea.

# Salaketak jarri dituzte Fagor Ederlanen kontra

*Hiru salaketa jarri dituzte, botatzen duen hautsagatik*

U.M.

**Joan den astean Fagor Ederlanen aurkako hiru salaketa jaso zituzten Arrasateko udaletxean. Salaketa jarri dutenek azaldu dutenez, Ederlan lantegiak botatako hautsak gorri-gorri uzten ditu inguruak, ugertuta moduan.**

Ez da Fagor Ederlanen aurka salaketak jartzen dituzten lehen aldia. Iaz, adibidez, izan zen halako salaketarik.

Salaketak jarri dituztenek esaten dutenaren arabera, lantegiak botatzen duen hautsak ingurua ugertuta bezala lagatzen du: autoak, lantegietako teilatuak... dena gorri-gorri eginda lagatzen du hauts horrek. Autoen kasuan, esaterako, oso garestia da gero gorritasun hori garbitzea. Lantegiko langileen kasuan, enpresak laguntza ematen die autoak garbitzeko.

Aurretik Ederlanen aurkako salaketak egon diren kasuetan, lantegiaren emisioak neurtu eta Eusko Jaurlaritzak ezarritako mugen azpitik daudela ikusi izan da.

Arrasateko Udalean ingurumenaz arduratzen den Joseba Ugalde zinegotziak adierazi digunez, kontua da, emisioak Jaurlaritzaren mugen gainetik egon edo ez, inguruak zikindu egiten dituela. Gainera, Ugalderen esanetan, ez dakigu emisio horiek zein kalte eragin diezaiokeen gizakiari.

Gauzak horrela, Arrasateko Udalak erabaki du emisio horiek hartzeko iragazki batzuk jartzea; gero, hauts hori aztertu egingo dute, pertsonen osasunerako kaltegarria den ala ez ikusteko.



## Lehendakaria MUren ikasturte hasieran

Juan Jose Ibarretxe lehendakaria Arrasaten izan zen atzo, eguena, Mondragon Unibertsitatearen ikasturte hasierako ekitaldian. Amaia Udal Antzokian egin zen ekitaldia. Lehendakariarekin batera, MUko errektore Iñazio Oliveri eta EHUko eta Deustuko errektoreak ere izan ziren; baita Hezkuntza sailburu Anjeles Iztueta eta Joxe Joan Gonzalez de Txabarri Gipuzkoako diputatu nagusia ere, besteak beste. Hedabide askotako kazetariak hurbildu ziren Arrasatera ekitaldiaren berri ematera. /E.A.

M
MEMESA SL
Industri hornidurak
943 71 24 25

GANESHA
tattoo & body piercing
Rastak eta extensioak
Hortzetako piercig-a
KLINIKA LAGUNTZAILEA • LABORATEGI KLINIKOA
ESPERIENTZIADUNA • HIGIENEA %100

Mentxu, 943 71 18 24 • Olarte kalea 43 bis • ARRASATE

## DEBAGOIENEAN LABUR

### Goienak editatzen duen 'Sustatu.com' webloga Buber sarietarako hautagaia da

Euskal web onenen Buber sarien laugarren aldia da aurtengoa. Zortzi mailatan banatuta dago sariketa; *Sustatu.com* komunikabide weben atalean dago. Erabiltzaile bakoitzak maila bakoitzeko web baten aldeko botoa eman dezake, egunean behin. Gogoratu behar dugu *Sustatu.com* izan zela euskarazko lehen webloga; 2001eko apirilean sortu zuen Goienak, Code&Syntax-ekin batera.

### Oraingo astean hasi dute gripearen aurkako txerto kanpaina ibarreko osasun etxeetan

Astelehenean hasi zuten gripearen aurkako txertoen kanpaina ibarreko herrietan, eta urriaren 31n amaituko da. Kanpaina hori zuzenduta dago 65 urtetik gorako guztiei eta 65 urtetik beherakoa izan arren, diabetesa, gaixotasun koronarioak eta giltzurruneko edo gibeleko gaixotasunen bat dutenei. Txertoa hartzeko aldez aurretik txanda eskatu behar da osasun etxera bertara deituta.

### Besaideko Oroitzapen Eguna ospatuko dute domekan, mendian hil direnak omentzeko

Mendi taldeek hainbat ekitaldi antolatu dituzte domekarako, mendian hil direnak omentzeko Besaiden ospatuko duten egunerako. 10:30ean hasiko dituzte ekitaldiak; ordu horretan, mendizaleei harrera egingo zaie Besaiden. 11:00etan meza izango da, hildako mendizaleen omenez. Ondoren, Elorrioko Dantza Taldearen saioa izango dugu. 12:30ean, berriz, herri probak izango dira.

### Bihar, zapatua, Bilboko kaleetan egingo duten manifestaziorako autobusak ibarretik

*Apartheid ez. Autodeterminazioa* lelopean bihar, zapatua, 17:30ean, Bilbon egingo duten manifestaziorako autobusak antolatu dituzte ibarreko hainbat herritan. Oñatin, esaterako, Txaketuaneko bidegurutzetik aterako da autobusa, 15:30ean. Arrasaten ere ordu berean izango da autobusa, Garibai etorbidean. Bergaran, berriz, frontoi aurretik irtengo da.

# Etxerat taldeari diruz laguntzeko kanpaina jarri dute abian ibarrean

*Presoen senideen gastuei aurre egiteko erabiliko dute batutako dirua*

A.I. / M.B.

**Bazkide kanpaina abiarazi du Etxerat taldeak, presoen senideak diruz laguntzeko. Herritarren laguntza eskatzen dute, sakabanaketak dakarzkien gastuei aurre egin ahal izateko.**

*Zuen laguntza, gure konpromisoa* lelopean, kanpaina berri bati ekin diote preso eta iheslarien senitartekoek. Etxerat taldearen esanetan, ez dute eurek aukeratu preso edo iheslari baten senidea izatea, baina, horrek, besteak beste, ondorio ekonomikoak ekartzen dizkie.

Etxerat-eko kideek azaldu digutenez, erakundeak ez dauka inolako diru sarrerarik, daukaten dirua senideek eurek jartzen dutena da. Gauzak horrela, zaila egiten zaie dauzkaten gastuei aurre egitea. Presoen senideak diruz lagundu nahi dituenak, senideengana eurengana jo dezake, baita herriko tabernetara ere.




IKER BARANDIARAN

Martitzenean elkarretaratzea egin zuten Arrasaten Etxerat-ekoek.

**PAULO ELKORO GOSE GREBAN**

Martitzenean prentsaurrekoa egin zuten Bergaran, Paulo Elkoro presoaren egoeraren berri emateko. 2003ko urtarrilean Nurenberg-en atxilotu zutenetik, Munich-eko espetxean dago Paulo. Espainiako Estatuak egindako estradizio eskaera dela-eta, mugagabeko gose grebari ekin zion irailaren 1ean. Irailaren 4an eskaera horren aurkako helegitea aurkeztu zuen Pauloren abokatuak, eta erantzunaren zain daude.

Herritar ugari bildu zen martitzeneko prentsaurrekoan, eta, besteak beste, Alemaniari eskatu zioten Espainiako Estatuaren politikan ez inplikatzeko eta onar diezaiola Paulori Alemanian libre bizi izateko eskubidea.

Martitzena ezkero, egunero elkarretaratzeak egiten dituzte San Martin plazan, 19:30ean.

# Inazio Lakuntza izango da Mankomunitateko presidentea

AINTZANE IRIZAR

Arrasateko alkate Inazio Lakuntza izango da Debagoieneko Mankomunitateko presidentea datozen lau urteotan. Lehen aldiz aurkeztu zen Lakuntza alkatetzarako maiatzeko hauteskundeetan, EAJ-EA koalizioaren izenean. Erabakia hartuta dagoen arren, ez dute presidente izendatuko irailaren 24ra arte. Azkeneko agintaldian Victoriano Gallastegi Bergarako alkatea izan da Debagoieneko Mankomunitateko presidentea.



ARTXIBOA

Inazio Lakuntza, Arrasateko alkatea.



IKERLEKU
PODOLOGIA ZENTROA

– Oinetako gaixotasunak
– Azterketa biomekanikoa
– Kirol podologia

Ikerleku zeharbidea BERGARA **943 76 07 84**

ARRASATEN
PABILIOI INDUSTRIAL/KOMERTZIALA
SALGAI
Leku ezin hobean 3.600 m$^2$
Bulegoendako instalazioak, elektrizitatea, aire girotua, komunak
3.600 m$^2$, moduluak 300 m$^2$-tik aurrera
575 euro/m$^2$-tik aurrera (96.500 pta.)
629 06 14 72

ANTZUOLA

## Autoen abiadura murrizteko hainbat lan egingo dituzte Egurrabei parean

Aurreko astean hasi zituzten Egurrabei baserriaren pareko lanak. Diputazioko arduradunek azaldu digutenez, *sarrerako atea* deitzen diotena egingo dute hantxe. Lan horien helburua da Deskargatik behera datozen ibilgailuek, herrira iristerako, abiadura murriztea.

Orain dela urte eta erdi, Errekalde parean, oinezkoendako babesgunea egin zuten. Aurrera begira, berriz, Beheko auzoko bidegurutzean aldaketak egiteko asmoa dauka Gipuzkoako Foru Aldundiak. /A.I.




JULEN IRIONDO

OÑATI

## Mundu mailako artzainen kongresua atzo, eguena, hasi zen

Mundu osoko 50 bat artzain eta aditu elkartu dira Artzain Mundua elkarteak bigarren urtez antolatu duen kongresu horretan. Atzo, eguena, egin zuten kongresuaren inaugurazio ekitaldia, eta hantxe izan ziren, besteak beste, Nikolas Segurola artzain eskolako arduraduna, Nuria Lopez de Gereñu Landa Ingurumenaren Garapenerako diputatua, Gonzalo Saenz de Samaniego Nekazaritza eta Arrantza sailburua eta Joxe Fernandez Oñatiko alkateordea. Artzain Mundua elkarteak esku artean dauzkan hiru proiektu aurkeztuko ditu kongresuan: dokumentazio zentroa, artzainaren museo etnografikoa eta artzainen sare digitala. Aipatzekoa da, bestalde, domeka goizean Nazioarteko Artzain Txakurren Txapelketa jokatuko dutela San Martingo zelaietan. /A.I.

ARETXABALETA

## Haur Dantzarien Eguna ospatuko du Loramendi dantza taldeak domekan

Loramendi dantza taldeak, aurten ere, Haur Dantzarien Eguna antolatu du. Oraingo domekan, hilak 21, izango da festa eguna. Goizean, 10:30ean elkartuko dira dantzari guztiak, eta hamarretakoa egingo dute Herriko Plazan. Gero, hiru taldetan banatu eta dantza saioak eskainiko dituzte herriko hainbat plazatan. Arratsaldean, berriz, 17:00etan elkartuko dira Herriko Plazan, eta alardea egingo dute. Aurten, Arrasateko, Oñatiko, Bergarako, Antzuolako eta Soraluzeko dantzariak etorriko dira herrira. /A.L.

ARAMAIO

## Datorren zapatuan, hilak 27, mendi ibilaldia egingo dute Aramaion

Aitor Aranaren omenezko VII. mendi ibilaldia irailaren 27an izango da, zapatua. Aurtengo edoziorako 37 bat kilometroko ibilbidea antolatu dute. Antolatzaileek zazpi-zortzi ordukoa izango dela kalkulatzen dute. Ibarra-Kurtzeta-Jarindo-Marixeka-Mirugain-Oleta-Lezia-Orixol-Ibarra da egin beharreko ibilbidea.

Izena emateko honako bi telefonoetako batera deitu beharra dago: 615 75 28 13 (Aitor) edo 658 70 48 58 (Unai). Bestela, egunean bertan ere eman daiteke izena. /UBANE MADERA

ESKORIATZA

## Herrian dantza taldea sortzeko ekimena jarri du abian Udalak

Dantza taldea sortu gura du Eskoriatzako Udalak, eta Musika Eskolaren eskuetan utzi du horren ardura. Dagoeneko egin dituzte lehenengo batzarrak, eta taldetxo bat lanean jartzeko beste umek eman du izena. Hala ere, oraindik izena emateko epea zabalik daukate eskoriatzarrek.

Dantza taldea ez da lehenengoa izango herrian; izan ere, orain dela 10 bat urte ere egin zuten taldea, eta orduan, 100 lagunetik gora hartu zuten parte. Poliki-poliki dantzariak alde egiten hasi ziren eta 1998an desagertu egin zen. /M.A.

BERGARA

# Txapa irrati libreak egoitza eta programazio berria estreinatuko ditu

Txapa Irratiak egoitza eta programazioa estreinatuko ditu datorren astean.

Programazioa guztiz finkatu barik dago oraindik, baina Txapako kideen esanetan, zabala izango da. Izan ere, astelehenetik domekara eta 24 orduz emititzen dute, 97.25ean. Denetariko programak egongo dira: musika saioak, elkarrizketa saioak, tertuliak.. Ia guztiak arratsaldez eta gauez. Eguneko gainerako orduetan saio horien errepikapena eskainiko dute.

**EGOITZA BERRIA GAZTETXEAN**

Egoitza berria ere estreinatuko dute datorren astean. Orain arte Zabalotegi dorreko behe-solairuan egon dira; eta datorren astetik aurrera, gaztetxetik emititzen hasiko dira. Izan ere, Udalak konpondu berri du gaztetxea, eta gazteek hala eskatuta Txapa Irratiarendako gela bat egokitu dute lehen solairuan.

Txapako kideek dagoeneko eraman dituzte tresna guztiak egoitza berrira, eta egunotan emisioa ahalbidetuko duen antena jartzeko zain zeuden.

Herriko gazte batzuek sortu zuten Txapa, 1984. urtean. Garai hartan, sindikatu batek lagatako gela zen emisio zentroa. 1989an, Udalarekin sinatutako hitzarmena dela-eta, Zabalotegiko dorrera joan ziren.

Programazio eta egoitza berria inauguratzeko, Txapa jaia antolatu dute asteburuarako: gaur, egubakoitza, zinema maratoia egongo da, 22:00etan, gaztetxean. Bihar kontzertua egongo da, Señor No eta Black Ships taldeekin ./M.B.

**Zertzelada**

**Programazioaren estreinua dela-eta, asteburuarako Txapa jaia antolatu dute gaztetxean; zinema emanaldiak eta kontzertuak egongo dira**

ARRASATE

# Emakume Txokoa izeneko udal zerbitzuak zabaldu ditu ateak aste honetan

Oraingo astean zabaldu dute estreinakoz Arrasateko Emakume Txokoa. Udalak eskaintzen duen zerbitzu berria da, emakumeen heziketarako, informaziorako eta integraziorako; eta, jakina, berdintasunaren alde jarduteko.

Uarkaperen atzeko aldean dago, erabilera askotariko eraikinaren atzeneko solairuan. Eta hainbat ekimenetarako erabili ahal izango da. Tartean, txokoko langileek makina bat ikastaro, hitzaldi, bideo-forum eta bestelako antolatu dituzte datozen hiru hilabeteotarako. Esaterako, datorren eguenean, hilak 25, Edurne Pasaban mendizaleak berbaldia egingo du, 19:00etan. /U.M.



UBANE MADERA

Esther Lizarralde teknikariak arreta zerbitzua eskaintzen du Txokoan.

ELGETA

## Aerobikeko eskolak 20:00etatik 21:00etara izango dira aurrerantzean

Oporren ostean, joan den astelehenean ekin zioten aerobik ikastaroari. Hasieran proposatutako ordutegia 19:00ak eta 20:00ak artekoa bazen ere, parte-hartzaileek hala eskatuta atzeratu egin dute, eta aurrerantzean 20:00etatik 21:00etara bitartean izango dira saioak, astelehenetan eta asteazkenetan.

Bestalde, astelehenean astekoa zen yoga ikastaroa ez da abian jarri, ez daeta talderik osatu. Gutxi batzuek eman dute izena, baina oraindik jende gehiago behar dute. /I.A.

LEINTZ GATZAGA

## Gatzagari eta gatzagarrei buruzko diaporama laster prest

Orain dela hilabete batzuk, Leintz Gatzagako Udalak herriari eta bertako herritarrei buruzko diaporama egiteko enkargua egin zien Txelu Angoitia argazkilari durangarrari eta Juan Martin Elexpuru idazleari. Batak erretratuak egin eta besteak irudiei letra ipini die. Orain, berriz, muntaia eta musika egokitzeko azkeneko lanetan dihardute Ihardunekoteknikari batek eta Beatriz Artzamendi musikari arrasatearrak. Gauzak horrela, datozen asteotan egingo dute lanaren aurkezpena. /A.G.

Mondragon Unibertsitateak asteon inauguratu du ikasturtea. Bertako errektore da Inaxio Oliveri, eta hezkuntzaren esparruan ibilbide luzea egindakoa da. Mondragon Unibertsitatea eta hezkuntza izan ditugu hizketagai.

IRATI AGIRREAZALDEGI



I.A.

# *Inaxio Oliveri*

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA

# “Etorkizuneko gizarte eta ekonomiari erantzuteko, hezkuntza molde berriak behar dira”

POLITIKA

**“Politika bizi izateko era bat da; oporrik eta etenik gabeko bizimodua, egunero eta egun oro bizi beharrekoa. Gainera, sozialki oso gutxi baloratua dagoena”**

CAMPUSAK

**“Kooperatiben esparrua beste leku batzuetara transmititzeko eta eskaintza bertaratzeko ireki ditugu campusak ibarreko herrietatik kanpo”**

**Nolatan hasi zinen Mondragon Unibertsitatean?**

Orain dela bi urte hasi nintzen. Errektore Kontseiluak errektore kargua hartzeko proposamena egin zidan, eta proiektu interesgarria iruditu zitzaidanez, onartu egin nuen. Gainera, aurrez egindako lanarekin, hezkuntzarekin, harremana zuen, eta heziketa unibertsitariorako pausoa ematea erabaki nuen.

**Izan ere, aurrez hezkuntzaren esparruan makina bat lan egindakoa zara.**

70eko hamarkadatik aurrera hezkuntza gestioan jardundakoa naiz, bai langile moduan baita zale moduan ere. Hasieran ikastolen mugimenduan ibili nintzen, garai hartan gehienak bezala, zale edo laguntzaile modura. Ondoren, euskal erakundeak osatuta bertan sartu nintzen. EAko idazkari nagusi izan nintzenean ere gertutik jarraitu nuen hezkuntzaren gaia, eta parlamentari garaian Hezkuntza batzordean izan nintzen. Beraz, beti gertutik bizi izan dudan esparrua da.

**Politikan ere jardundakoa zara.**

Bai, eta politika oso gogorra da, sozialki gutxi baloratua dagoelako. Hala ere, nork bere posizio ideologikoa argi izanda eta politikan gogoz jardunda aberasgarria izan daiteke. Niri, gizarteko arazo guztiei buruzko ikuspegi orokorra izateko aukera eman dit. Politika bizi izateko era bat da; oporrik eta etenik gabeko bizimodua, egunero eta egun oro bizi beharrekoa.

**Mondragon Unibertsitateko kontuetara itzulita, zein helburuekin hasi zinen errektore lanean?**

Unibertsitatea bera ezagutzen nuen, baina organizazio berri batera ohitu behar izan nuen, ez egiturara bakarrik, funtzionatzeko erara, unibertsitatearen kulturara... Nire asmo nagusia proiektu unibertsitarioa sendotzea eta etorkizunerako prestatzea zen. Mondragon Unibertsitatea gaztea da oraindik eta bere garapen bidean asko dauka egiteko. Betiere berezitasunei eutsiz, bestela ez luke zentzurik izango. Kooperatibismoaren baitan sortutako unibertsitatea izanik, giza balioek ez ezik kooperatiben marko juridiko eta ekonomikoak ere garai berrietara egokitu behar dute. Bestalde, enpresekiko lotura estua dago eta oreka lortu behar da prestakuntza akademiko eta praktikoaren artean. Unibertsitateak gizarte eta ekonomia berri bati erantzun behar dio eta horretarako hezkuntza molde berriak jarri behar dira abian, Europatik datorren eredura moldatzeko.

**Bi urtean helburuak bete dira?**

Bagoaz pixkanaka bidea egiten. Etorkizunari begira hainbat proiektu jarri ditugu abian: Mendeberri proiektua estrategia berria da, formazioari komunikaziorako dohainak, lidertza... erantsita lortzen dena, betiere zientifikoki landuta. Bestea Garaia da, campusen kontzepzio berrian oinarritua: enpresa, zentro teknologikoa eta unibertsitatea gune berean elkartuko dituena. Urte batetik bestera ez dago dena lortzerik, baina oinarriak finkatzen ari gara, eta hori ez da gutxi.

**Ikasturte berria asteon inauguratu duzue. Zein aurreikuspenekin?**

Lehen aipatutako helburu orokorrez gain, beste asmo batzuk ere baditugu: eskaintza akademikoa sendotzea, esaterako. Horretarako, Irakaskuntza ikasketetan Hezkuntza Fisikoko espezialitatea ezarri eta Bidasoa aldean Enpresaritza diplomatura ikasteko campusa ireki dugu. Mendeberri proiektua beste kurtso batzuetara zabaltzeko eta Garaia gunea unitate gehiagorekin indartzeko asmoa daukagu.

**Zein eskaintza duzue ikasturte berrirako?**

Ingeniaritza Industrialarekin zerikusia dutenak: sei karrera tekniko, goi mailakoak lau, eta hiru doktoretza programa. Enpresaritza lizentziatura eta Zuzendaritza Idazkaritza karrera, Irakaskuntza ikasketak eta Humanitateak eta Enpresa. Horiek ibarreko zein gainerako campusetan. Mondragon Unibertsitatea ezin da jeneralista izan. Beraz, eskaintza ahalik eta onena ematen saiatzen da.

**Azken ikasturteotan campus berriak zabaldu ditu Mondragon Unibertsitateak. Zein da hedapen horren helburua?**

Kooperatiben esparrua beste leku batzuetara transmititzeko eta eskaintza bertaratzeko campusak Lea-Artibain, Goierrin, Elgoibarren eta Irunen ireki ditugu. Gainera, hainbat lekutako indar ekonomiko eta erakundeetatik campusa zabaltzeko eskaerak jaso ditugu.

**Campus guztietan ikasketa guztiak euskaraz egin daitezke?**

Irakaskuntza eta Humanitate eta Enpresa ikasketetan nahiko garatuta dago kontua. Ingeniaritzan eta Enpresa ikasketetan %80 ikas daiteke euskaraz. Hala ere, ikasleen mailaren arabera batzuetan ikasgai batzuk gaztelaniaz irakasten dira. Hizkuntzei dagokienez, beste planteamendu bat egin beharko litzateke: unibertsitarioek ez dute elebidun bakarrik izan behar, hizkuntza gehiago jakin beharko lituzkete, hizkuntzak ikasteko eta lanerako tresna izan behar du-eta.

**Hezkuntza sailburu izan zinen. Errektore baten ikuspuntutik nola begiratzen diozu Hezkuntza Sailari?**

Hezkuntza Saila konplikatua da, eta bertan egon ondoren, kanpotik begiratuta are gehiago konturatu naiz horretaz. Erakunde handia izateak dakartzan ohiko arazo guztiak eduki ditzake, baita bestelakoak ere: pribatu-publiko eztabaida, euskararen eta, oro har, hizkuntzen gaia, euskal balioak nola landu... Gizarteko arazoak, azken baten. Hezkuntza Sailean ibili nintzenean, nire asmoa zen hartu nuen baino sistema hobea lagatzea, eta oraingoek ere gauza bera egitea nahi nuke. Hezkuntza ez unibertsitarioari dagokionez, Espainian gurea da onena eta, unibertsitate mailan gora joan dadin ahalegina egiten ari da Hezkuntza Saila.

**Euskal Unibertsitate Sistemaren Legea prestatzen ari dira. Eraginik izango du Mondragon Unibertsitatean?**

Publikoa gehiago ukituko du, baina gurean ere izango du eragina, sistema hobetuz gero denontzat hobetuko da-eta. Baina lege horren baitan badira zenbait puntu gu era ukitzen gaituztenak: unibertsitate guztientzako eztabaida-gunea sortu nahi da, kalitatea bultzatzeko agentzia, finantziazio moduen arautzea...

**Kalitatea aipatu duzu. Nola neur daiteke kalitatea hezkuntzan?**

Hainbat parametro daude: batetik, unibertsitateak berak gizartean duen onarpena hartzen da kontuan. Gizartean ez ezik, Ingeniaritzako karrerak, esaterako; bestetik, Espainiako Ministerioaren kanpo ebaluazio bat pasatu du. Eta ikasleen enplegutasuna ere garrantzitsua da.

**Unibertsitateak eta enpresek harreman estua duzue. Enpresek zein onura ateratzen dute elkarlan horretatik?**

Ikasleek enpresa zer den bertatik bertara ikus dezakete eta enpresan bertan ikasleen dohainak neurtzeko aukera dute, gero pertsonala osatzeko. Bestalde, ikasketak enpresen beharretara egoki daitezke. Unibertsitate-enpresa harremana aberasgarria da, ezagutza praktikoek eta teorikoek bat egiten dutelako. Beraz, onura ez da enpresendako bakarrik, baita guretako eta gure ikasleendako ere.

**Mondragon Unibertsitatea kooperatibismoak sustatutako unibertsitatea izanik, kooperatibismoak badu lekurik ikasketetan?**

Unibertsitatearen beraren eraketa eta funtzionamendua kooperatibismoan oinarrituta dago, eta hori ikasleek naturalki bizi dute. Bestalde, teorikoki kooperatibismoaren balioak, ezagutzak eta berezitasunak agian gehiago landu beharko lirateke. Hori da, hain zuzen ere, Mendeberri proiektuaren helburuetako bat.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2003ko irailaren 19a

# Zabalik



BEATRIZ ZABALONDO

## *Oporrak*

**Gauza ederra, gero! Beinke, gure gorputzak eta buruak derrigor behar dute etenaldia, atsedena. Ekaitzaren ondoren barealdia nola, halaxe guk ere oporraldia lanak amaitutakoan. Urtean behin, gutxienez. Birritan edo gehiagotan bada, hobe.**

**Eta lanak amaitu gabe, opor luzeak izatera derrigortuta daudenak? Badira urteetarako hotela ordainduta dutenak: itzaletan 50ºC-tik gora izan omen dute aurtengo udan. Inora mugitu ezinik, metro koadro pare baten bueltan... Horiek gorputza erretzen eta burua irakiten, seguruago! Lehen zer lan egin duten eta zer eskubide zituzten-eta... Hori ahaztu samartuta daukagu jada. *Aizu, barkatu, nik oporrak behar ditut.***

**Badira, hala ere, oporretan noiz eta nora joan ondo kalkulatzen dutenak: pilula-trapitxero gazte izorratzaileak, esate baterako. Inoren burmuina betiko jota uzten dakiten "profesionalek", gaztetxo batena, gero beste batena... Horiek "eman eta zabal ezazu" lege nagusia ondo aplikatzen dute: ahalik eta bezero gehienengana iritsi, guztiontzat ere prezio eskuragarrietan. *Aizu, aldameneko bizilagunaz ari zara, ezta?***

**Eta sekula oporrik hartzen ez duten horiek? Herriak euren gogara zuzendu nahi dituzten zentsore berriak? Horiek herrien memoria betiko oporretan bidaltzeko apustua egina dute, aspalditxo. *Aizu, niri ipuinik ez.***

**Ez, zertan tematuko naiz, bada, oporretan bidali duten hura eta burmuina kaltetuta daukan beste hura anaiarrebak dituzula azaltzen. Egun batetik bestera lokartzen ari garen herria gara-ta.**

***Aizu, barkatu, oporretan daukagu memoria!***

# Gutunak

## Don Lucio joan da

Ez dut inoiz ahaztuko: erdibitutako betaurrekoak eta bata grisa —berak erakutsi zigun *guardapolvo* zela hitz egokia— ibiltzen zituen. Mahai-gainean ez zuen inoiz falta malbabisko karameluen paketerik. Noiz edo noiz sari txikitzat erabiltzen zituen baina, batez ere, eztarria zaintzeko, bederatzi eta hamar urte bitarteko berrogeita hamar mutikori! aurre egin behar baitzien ikasgelan.

Bi ikasturtez don Lucio de la Presaren ikasle izateko zortea izan nuen, eta beste arrazoi bategatik ere zoriontsu sentitzen naiz; izan ere, eskolaurreko nire andereñoa, María Pilar Lonarbide, Zubietako eskola ederrean —garai hartan behintzat— klaseak ematen zituena, haren senarra baitzen. Senar-emazteek lau alaba zituzten orduko, baina, guretzat, aparteko pedagogo hura *señorita* María Pilar zen guretzat, eta hala izango da betirako. Gurasoak aparte, don Luciok eta María Pilar andereñoak izan dute eragin handiena nire hezkuntzan eta heziketan, eta harro nago horregatik.

Don Luciok arratsalde osoan liburuak kapituluka irakurri ohi zizkigun. Atsegin handienaz gogoratzen dut amaren bila Apeninoetatik Andeetara joandako mutiko italiar baten historia kontatzen zuena. Handik urte gutxira, historia bera telebistara egokituta ikusi nuenean, baina estilo aspergarri eta negar-eragileaz, don Luciok irakatsi nahi zigun literatura onarekiko atseginaz jabetu nintzen.

Telebistako erreferentzien hariari jarraituz, garai hura hain ondo jasotzen duen *Cuéntame* serie bikainaz arituko naiz. Serieko pertsonaia nagusiak, kontalariarena egiten duenak, justu nire adina du hirurogeiko hamarkadaren amaiera aldean. Horregatik, xehetasun eta pertsonaia ugarirekin erabat identifikatuta sentitzen naiz. Zehazki, ohiko eskola-maisu autoritario, garratz eta erretxina agertzen da. Guztiok ezagutu dugu horrelako maisurik, garai hartako arketipoa zela esan daiteke, baina don Lucio ez zen gisa horretakoa. Hezitzaile atsegin eta pazientzia handikotzat dut gogoan. Ez zuen gorputz-zigorrik erabiltzen —patilatik tira egiten zuen noiz edo noiz— eta tolerantzian eta gizatasunean hezten saiatzen zen. *Lengoaia sexistaren* kontzeptua ezagutu baino askoz ere lehenago, berak irakatsi zidan macho edo machote hitzak adjektibo kalifikatzaile positibo gisa ez erabiltzen. Bizitzan, berak beste *Maisu* titulua merezi duen jende gutxi ezagutzen dut.

Gure ikasgela Bergarako eraikin ospetsu batean zegoen, Epaitegietan hain zuzen, behe-oinean. Eraikinaren patioa ospetsua zen, bertan Angiolillo garrotezigorraz hil zuten lekua baitzen, baina guretzat futbol-zelaia besterik ez zen. Beti selekzio berak aritzen ziren elkarren aurka: San Pedrokoak Santa Marinakoen aurka.

Futbolari frustratuok, beti ordezkoen aulkian egon beharrean, beste jarduera batzuetan aritzeko aukera genuen. Don Luciori, itxuraz, *Trabajos Manuales* irakasgairako ezarritako asteko ordutegia behar adinakoa ez zela iruditzen zitzaion, eta jolastordu guztiak eskulanetan laguntzen emateko izugarrizko pazientzia zuen. Batez ere marketeria zuen gogoko, ilezerrak eta okume-xaflak —*okumen* esaten genuen— erabilita.

Ordurako, jadanik, gaur egun hain ospetsua den Jesús Mari Lazkano pintorea adierazpen artistikoan nabarmendu zen. Don Lucioren beilan berarekin topo egin nuen eta arte plastikoen hastapenetan beregan don Luciok funtsezko eragina izan zuela adierazi zidan. Besteok ez diegu Lazkanok bezain etekin handia atera lehen jarduera artistiko horiei, baina ziur nago nire belaunaldiko ehunka bergararrek ere laugarren kurtsoko gure maisuaren oroipen ahaztezina dutela.

Une honetan, ezinbestean atzera begiratzeko adinean dagoeneko sartzen hasia naizenean, seme-alaben heziketan murgilduta, zuzenean egiaztatzen dut hezitzailearen lana zein zaila den. Horregatik, are eta gehiago miresten ditut don Lucio eta María Pilar andereñoa bezalako hain pedagogo nabariak. Aspaldi erretiratu ziren baina, zorionez, bere arrastoa bizi-bizirik dago: lau alaba, eta laurak irakaskuntzan. Gurasoen bokazioa jasoko zuten, bai eta —ziur nago— haien dohainak ere.

Don Lucio joan zaigu, isil-isilik, umiltasunez, gizon handiak bezala, edota —berak zuzendu egingo zidan— pertsona handiak bezala. Agur don Lucio, hasta siempre... Maestro.

VALEN MOÑUX (DON LUCIO DE LA PRESAREN IKASLE OHIA)
Bergara

# Hemeroteka

## Kurtso berria eta euskara

Nafarroa Garaiko haurrak geletan sartzen ari diren ordu berean ekin diot artikulua idazteari. Nondik hasi ez dakidala, Berrian Iztuetari irakurritakoak betiko irakurketa erakutsi digu. "Elebitasuna lortuta dago" esan du, eta imajinatzen dut hori zioen bitartean euskaldun askok eta askok ez duela esandakoa sinetsi. Ikasturte hasiera amaitu zen ildo bertsutik ote datorkigu berria? Ahul ibili behar du Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak D ereduaren jaitsiera estaltzeko eta hizkuntza politika saltzeko beste argudiorik ez badauka. Ereduen politikak ez ditu haurrak euskaldunzten, eta eleaniztasunera aspira dezaketenak D ereduan matrikulatutako gehienak (ez guztiak) izango dira. Aurten haur hezkuntzan matrikulatutako erdiak, alegia. Beste erdiekin errespetuz jokatuko dugu: haiek hautatutako hizkuntzan hitz egingo diegu, euskaraz hasten bagara ez baitute deus ulertuko. Eta ezin izango dugu euskaraz aritu euskaraz jakiteko eskubidea ukatu zaielako. Hori guztia eleaniztasunaren izenean.

Ez dira haur kaltetu bakarrak izango, ordea. Frantziar agintariak hitza jaten ere maisuak dira eta. Frantziako Itzuliko zuzendariak egin moduan, hezkuntza arduradunek ere uko egin diote agindutakoa betetzeari. Seaskak behar dituen irakasleak ez dira iritsi, eta gurasoak beharturik aurkitu dira itxialdian protesta egitera. Liberté eta Egalité-aren estatuan askatasun bakarra frantsesa aukeratzekoa da, eta euskara behintzat ez da bigarren mailako hizkuntza izatera ere iritsi. Herritarrei oro har euskara ukatzeaz gain, aukeratu dutenei ere hamaika oztopo jartzen dizkiete. Fraternité-aren izenean?

Ez dute, ez, etorkizun erraza derrigorrezko hezkuntzan euskaraz jakitea ukatzen dieten haurrek. Noizbait ikastea erabakitzen badute panorama beltzarekin aurkituko baitira. Matrikula ikaragarriak ordaindu beharko dituzte; denbora asko xahutu eta euskaltegi hurbilena aurkitzeko ere lanak izango dituzte. Euskararen etsaiek ez ezik, alde daudenek ere ez baitute intentziorik derrigorrezko hezkuntzan egindako arduragabekeria konpontzeko. Helduen Euskalduntze eta Alfabetatzearen ordezkarien proposamenei muzin egin eta euskaltegiak ingelesezko akademien pare jarri nahi dituzte.

JOXE ALDASORO (EHE TALDEKO KIDEA)
'Berria'. 2003-09-18

# Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE



# *Eztabaida*

Jose Maria Aznarrek Mariano Raxoi, oraingo Espainiako lehen presidenteordea izendatu du, 2.004. urteko hauteskundeetarako Espainiako gobernuburu izateko PPren hautagai. Erabakia oposizioak, oro har, ez du begi onez ikusi. Modu ezkorrean hartu dute euskal alderdi politiko gehienek, zer esanik ez abertzaleek. PPk azken urtetako politikarekin jarraituko duela esan dute gehienek. Alderdiko buruzagitza osoa zuela jakin zuenean Raxoik berak egungo estatu ereduaren defentsa egin zuen.

## Raxoirekin gauzak aldatuko al dira abertzaleendako?

### *Raxoirekin abertzaleendako aldaketarik?*



PELLO URIZAR
EA alderdiko kidea

Batek baino gehiagok ziur galdetu diola hau bere buruari, baina nik uste bigarren aldiz pentsatu eta beste inori galdetu aurretik baztertu duela galdera.

Eta hau ulertzeko ez da asko behar: Raxoi Aznarren gobernu guztietako partaide izan da, eta gobernu hauetako bakoitzean aurrekoan baino botere gehiagorekin. Prestigeren kasuan leialki bete ditu bere nagusiaren eskariak, horrekin bere jatorrizko herriaren aurka joan behar izan bada ere.

Ez gaitezen galdu eta beste alde batera begiratzen hasi; PPk bere gidaritzan edonor duela ere beti izango du helburu bat: Espainia handi eta bakar bat eratzea, eta horretarako euskal kutsua duen edozein gauza desagerraraziko du.

Abertzaleok ezin gaitezke Madrildik datozen aldaketei begira egon, argi badaukagu herri bat garela eta herri bezala guk hartu behar ditugula erabakiak, abia gaitezen.

Abertzaleen artean Euskal Herria eratzeko aukera desberdinak daudela badakigu, eta elkar onartu beharko garela gutxieneko adostasun batzuetara ailegatzeko ere argi izan behar dugu. Zertan ari dira bestela PP eta PSOE ? Euskal Herri burujabe baten proiektuak euren Espainiaren proiektua arriskutan jartzen duela-eta, dituzten diferentziak alboratu eta buru belarri ari dira abertzaleon aurka. 36ko gerran borrokatutako asko ariko dira pentsatzen zertarako hil ziren familiarteko eta lagunak.

Lizarra-Garazi akordioa izan da azken urteetan elkarrizketara hurbildu gaituen bakarra. Hau bertan behera gelditu zenean mesfidantza asko sortu ziren abertzaleon artean, baina jada bada orduа bertan egindako hankasartzeetatik ikasi eta Euskal Herriari eta bere seme-alabei merezi duten aukera emateko.

Gure herri zahar honek aurrera egin badu, gure arazoak konpontzeko irtenbideak guk geuk aurkitu ditugulako izan da eta ez kanpotik etorritako promesa eta aginduei kasu eginda.

Felipe, Aznar, Raxoi edo Zapatero izan, ez daukagu inongo esperantzarik kanpoan jarri beharrik, gurean baizik.

**“PPk gidaritzan edonor duela ere beti izango du helburu bat: Espainia handi eta bakar bat eratzea”**

### *Estrategia bateratua vs. estatuaren estrategia*



XABIER SARASUA
Aralarreko kidea

Ez dut Raxoi askorik ezagutzen eta horrek mugatu egiten du nire ikuspegia, baina entzun diodanaren arabera gauzek bere horretan jarraituko dutela iruditzen zait.

Ez da pertsona kontua, estatuaren estrategia baten aurrean gaude; ez bakarrik ezker abertzalearen kontrakoa, baizik eta ideia eta eskari abertzale guztien aurkakoa. Estatua dituen baliabideak erabiltzen dihardu, herriaren aurkako borrokan: botere exekutiboa, legegilea, juridikoa, komunikabideak...

Beraz, bide beretik jarraituko dute gauzek eta horretarako gutxienez hiru arrazoi nagusi daudela uste dut:

Herria beraien patrimoniotzat daukate, inola ere galdu nahi ez dutena: “Una , grande y *libre*?”. Hortaz, ez diote etorkizuna erabakitzeko bidea bere kabuz erabakitzen lagatzen.

Bestalde, abertzaletasunaren eta herri honen izaera propio eta beregainaren aurkako borroka indarkeria eta terrorismoaren kontrako eraso moduan mozorrotzen dute, horri izugarrizko etekin politikoa atereaz. Hain zuzen ere, PPk boterean jarraitzea estrategia honi zor dio hein handi batean. Eta etekin politikoa ateratzen jarraitzen duen neurrian, bere horretan segituko du gainera. Alde horretatik guk ere badugu zer ikasia. Jakin behar baikenuke zer ez dugun egin behar beraiei lan hori errazteko.

Hirugarrenik, euskal herritarrok ez dugu gaitasunik izan orain artean egoerari aurre egiteko. Elkarrizketa bidez geure arteko adostasunera helduko bagina eta herria sakontze demokratiko baterako bidean jarriko bagenu-su-etenaren eta autodeterminazioaren bidez-,beste kuku batek joko ligauke. Baina zoritxarrez bakoitzak bere astoari egiten dio arre. Batzuk indarkeria bideak zilegizkotzat jotzen dituzte, besteek, ostera, erakunde zatikatuetan etekin alderdikoi gehienak ateratzen saiatzen dira, eta horrela ez goaz inora.

Bada orduа Euskal Herria herri aitortzen dugun guztiok berriz ere estrategia bateratu bati ekiteko. Herri moduan bizirauteko gutxieneko oinarrietan ados jarri eta prozesua abian ipintzeko.Aznar ala raxoi guri bost axola. Etorkizuna geure esku dago

**“Ideia eta eskari abertzale guztien aurka estatuak sortutako estrategia baten aurrean gaude”**

**HURRENGO EZTABAIDAGAIA** — Iritzia emateko: goienkaria@goiena.com

*Tabako paketeetan gaixoen irudiak jartzea egokia iruditzen zaizu?*

# *Gora eta Behera*

**600 LAGUNETIK GORA ETORRI DIRA OÑATIKO KZGUNERA**

Oso pozgarriak dira Oñatiko Konekta Zaitez Gunearen erabilpen datuak: zabaldu zenetik, 600 bisitaritik gora izan ditugu, eta 250 lagunek hartu dute parte guk antolatutako ikastaroetan. Bistan da oñatiarrek badutela interesa teknologia berrietan, eta hori oso positiboa iruditzen zait.

**ADINEKO JENDE GUTXI ERABILTZAILEEN ARTEAN**

KZGunera hurbiltzen zaizkigun erabiltzaile eta ikasle gehienak jende gaztea da, eta adineko jendearen falta igartzen da; adinekoak ere animatu daitezela KZGunera etortzen!



ISA QUELLE
Oñatiko KZguneko arduraduna

# *Koplak*

### *Zortzigarren aldia*

Marokoko miseria
jasateko zailegia
penintsularen ertzeko mugan
jarria daukat begia.

Jendez gainezka patera
ei goaz bizi hobera ,
hainbeste aldiz entzundakoa
existituko ote da?

Amets edo helburua
mila aldiz zimeldua
egur pusketa za(ha)rkitu bat da
geure bizi-segurua

Baina irauli ta grabe
uretan alderik alde
noraezean izua ere
sentizeko indar gabe

Ustezko salbatzailetzat
ondoan Guardia Zibil bat
itzulerako bidaia hontan
ez gara itoko behintzat

Haseran bezala berriz
beldurtuta baina irriz
bihar goizean saiatuko naiz
bederatzigarren aldiz

JOKIN LABAIEN

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal
ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)
PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga, Natali Martínez, Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín, Imanol Elortza
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal
TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Lagunekin antxintxika

## Aluminios Francisco Alberdi eta Kanpazar-Kobate Harrobien

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Atletismo talde berria aurkeztu zuten joan den asteburuan Zumarragan. Amateur mailako korrikalariak dira gehienak eta atletismoan lagun giroan jardutea dute helburu. Kideen artean erdiak debagoiendarrak dira, oñatiarrak gehienak, eta besteak Urolakoak.**

Antxintxika, takarradan, korrika, arineketan, lasterka... Makina bat hitz gauza bera esateko. Kirola oinarrian eta kirol horren bueltan, talde berria sortu dute Debagoieneko eta Urolaldeko hainbat zaletuk.

Francisco Alberdi aluminiozko burdindegiaren eta Kanpazar-Kobate Harrobiak enpresaren babesean, korrika egitea gustuko duten 75 lagun inguru elkartu dira, eta taldea osatuta, joan den zapatuan jendaurrean aurkeztu zuten Zumarragako Argixao futbol zelaian.

Hasiera batean, Aloña-Mendiko Atletismo Saileko arduradun eta entrenatzaile Javier Gomezek 15 atleta inguru elkartu eta talde berria sortzeko ideia izan zuen. Baina ingurukoei eta ezagunei proposamena eginda, gehiago izan ziren taldearen anparoan animatutakoak. Guztira, 75 inguru, eta erdiak debagoiendarrak, horietatik gehienak Oñatikoak. Gizon eta emakume, adin guztietako jendea aurki dezakegu bertan, 15 urtetik hasi eta 70 urtera artekoak. Hala ere, korrikalari seniorrak eta beteranoak dira nagusi.

Izan ere, taldeko partaide izateko baldintza bakarra korrika eginez eta horretan ibiltzen den jendearekin gozatzea da. Izan ere, korrika egin zaleak dira oso taldeko kideak, eta antxintxika egitea eurendako energia edo indar iturri dela esan daiteke. Beharbada, horregatik aukeratu dute honako lelo hau taldearendako: *Entxufa zaitez bizitzara, entxufa zaitez korrikara*.




I.A.

Zumarragako Argixao futbol zelaian aurkeztu zuten atletismo taldea hainbat korrikalarik, klubeko arduradunek eta babesleek.

**HELBURUA**

Kirolari eta, batez ere, korrikalari herrikoien familia moduko bat izatea da talde horren helburua. Bertako kideak egunero bizimodu sedentarioa albo batera laga eta antxintxika hasi ziren halako baten, eta zaletasun moduan hasi zena gaur egun ia bizio bihurtu dela esan daiteke. Taldeko askok herri lasterketetan hartzen dute parte .

Orain arte etxetik edozein egunetan antxintxika egitera ez ateratzeko askoren aitzakia laguník eza bazen, orain ez dago ezetzik esateko inolako arrazoirik. Besteak beste, hori izan da korrikazaleak taldean elkartzeko motiboetako bat, entrenamendu saioak egiteko lagunak batzea. Horretarako, maila nazionaleko taldeekin aritutako entrenatzailea, Javier Gómez, izango dute aholkulari. Beste asmo batzuk dira atletismoari buruz hitz egiteko jendea edukitzea, proben berri jakiteko modua izatea edo, besterik gabe, korrika saioei buruzko zalantzak argitzea.

Herri probetara nahi duten guztiak joango dira, eta talde moduan hartuko dute parte. Batez ere Gipuzkoan egiten diren probetan parte hartzeko asmoa azaldu dute taldeko arduradunek.

Horrenbestez, ez dira, ez, alferrik batu amateur mailako horrenbeste lasterkari eta beste hainbat federatu.

*“75 korrikalari inguru daude taldean, eta erdiak debagoiendarrak dira”*

*“Taldeko partaide izateko baldintza bakarra antxintxika lagun giroan eginez gozatzea da”*

*“Gipuzkoako herri lasterketetan hartuko dute parte talde modura”*

SAIOA
AEROBIKA . BODY POWER . STRETCHING . DANTZA MODERNOA . GIMNASIA ZUZENGARRIA . FITNESS . MUSKULAZIOA . KARATEA . DEFENTSA PERTSONALA . MASAJE ZERBITZUA . SOLARIUMA . .DIETETIKA AHOLKULARITZA . ESTETIKA . SAUNA
Urriaren 1etik 15era. MATRIKULA DOAN!!!
Astelehenetik egubakoitzera: 06:30 –22:00 Zapatuetan: 11:00 – 14:00
Kontzezino kalea (tunelean). ARRASATE. Tel.: 943 79 97 31. gimnsaioa@euskalnet.net

BETI ONA
SPINNING . AEROBIKA . BODY POWER . STRETCHING . MUSKULAZIOA . FITNESS . GIMNASIA . KARATEA . WIN CHUNG . BOXEOA . SAUNA . DIETETIKA AHOLKULARITZA . ERREHABILITAZIOA . ZUTIKAKO ETA ETZANDAKO SOLARIUMAK
Urriaren 1etik 15era. MATRIKULA DOAN!!!
Astelehenetik egubakoitzera: 09:30 –22:00 Zapatuetan: 10:00 – 13:00
Uribarri etorbidea 12. ARRASATE. Tel.: 943 77 00 67. gimnsaioa@euskalnet.net

Lazkano
KIROL OINETAKOAK ETA OSAGARRIAK
Teknologia berrienari esker, analisi biomekanikoak egiten ditugu. Zure oinendako kirol plantilla eta plantilla ortopediko erosoenak neurrira izango dituzu. Galdetu konpromiso barik.
Zure oinen erosotasuna, gure bermea.
Barrenkale 15-17
Tel./Faxa: 943 76 25 03
BERGARA

HILARION
Hilarion jatetxea-taberna
Larrea plaza 5 • ARRASATE • 943 77 01 69
Eguneko menuak
Karta zabala
Era guztietako bazkari eta afariak
Talde gazteendako prezio bereziak
Plater konbinatuak / Ogitartekoak / Sandwichak

# egiteko talde berria

## babespean amateurren atletismo taldea sortu dute

**KORRIKALARI SONATUAK**

Gehienak zaletuak besterik ez da, baina taldekideen artean bada sona handiko lasterkaririk, baita federatu mailakorik ere. Besteak beste, hainbat oñatiar: Ritxar Fernández maila nazionaleko atleta, krosean aritzen diren Asier Osinaga eta Iñaki Pelayo, gazte mailako Yeray Varela eta mendiko probetan entzutetsua den Asier Urdanpilleta, gaur egun Munduko Kopako sailkapenean aurreko postuetan dagoena.

**BABESLEAK**

Urola aldeko eta Debagoieneko korrikalariak dira taldekide gehienak, eta bi bailarotako enpresak dituzte babesle: Aluminios Francisco Alberdi eta Kanpazar-Kobate Harrobiak enpresak, hain zuzen ere.

Bestalde, Urola aldeko hainbat udalen laguntza ere jaso dute. Taldearen aurkezpenean Zumarragako Udaleko Kirol zinegotziak zera esan zuen: "Honelako lana modu altruistan egiten dutenek gure laguntza merezi dute. Kirola filosofia pertsonal modura hartu eta euren zaletasuna besteengana zabaltzeko ahalegina egiten dute, gainera".

**LASTERKETAK**

Aurkezpena egin ostean, korrikarako duten grina zenbateraino-koa den erakusteko-edo, hainbat taldekide Legazpiko Milia lasterketan hartu zuten parte zapatuan bertan, eta ez zituzten nolanahiko postuak lortu.

Amateurra izan arren, korrika maila ona duela erakutsi zuen beteranoetan lehenengo postuan sailkatu zen taldeko antxintxikalari batek; eta seniorrek ere sailkapeneko aurreko postuetan amaitu zuten. Baina hori ez da izan taldearen sorreratik talde modura egin duten proba bakarra. Aurrerantzean ere beste lasterketa askotan ikusiko ditugu; Ordiziakoan, esaterako.

Klubak oraindik ez dauka kokaleku zehatzik, baina edozein korrikazale taldean hartzeko prest daudela adierazi digute arduradunek. Horretarako, lagun giroan antxintxika egiteko gogoa baino ez da behar.

Beraz, interesatuok Santiago Gómezi deitu beharko diote izena emateko (606 44 24 21).




GOIENKARIA

Gipuzkoako herri lasterketa gehienetan hartuko dute parte korrikalariek talde modura.

## Juan Luis Etxebarria / Babeslea



Kanpazar-Kobate Harrobiko arduraduna da Juan Luis Etxebarria. "Kasualitatez egin ziguten taldeari laguntzeko eskaintza, eta kirola bultzatzea gure enpresaren filosofiarekin bat datorrenez, taldeari laguntza ematea eta hura babestea erabaki dugu. Ez daukagu ekipoaren kontura dirua irabazteko asmorik, eta hori hasieratik argi izan dugun ideia da. Orain arte nor bere kabuz ibili da lasterketetan, eta denak batudiren honetan, gastuak arindu egin nahi dizkiegu", esan digu Juan Luisek.

Asmoen artean ez dago izugarrizko lorpenak eskuratzea eta taldekideak lasterketa guztietan podiumean ikustea, ezta gutxiagorik ere. "Egia esan, ez daukagu esperantza handirik, baina pozgarria izango litzateke talde berri honetako korrikalariak aurreko postuetan ikustea", adierazi digu Juan Luis Etxeberriak.

*"Kirola bultzatzea enpresaren filosofiarekin bat datorrelako babestu dugu atletismo taldea diruz lagunduta"*

## Asier Osinaga / Korrikalaria



Krosa egiten du Asier Osinaga oñatiarrak, eta taldeko kide zergatik den galdetuta zera erantzun digu: "Proba askotan korrikalari berberak elkartzen ginen, baina nor bere aldetik joanda. Beraz, erabaki genuen entrenatzeko eta probetara joateko batzea izango litzatekeela ideia onena. Asmo horrekin bat nentorrenez, taldean izena eman nuen".

Gehienak zaleak dira, baina bada taldean Asier bezala federatuta dagoenik ere. Bere hurrengo erronka zein den jakin nahi izan dugu. "Proba guztietara aurrekoan egindako marka hobetzeko asmoz joaten naiz, eta hori lortuz gero, proba amaituta pozik bueltatzen naiz etxera, sailkapenean aurre samarrean amaituz gero, orduan eta hobeto, jakina", azaldu digu Asier Osinagak.

*"Atletismo proba guztietara aurrekoan egindako markak hobetzeko asmoz joaten naiz; postu ona lortuz gero, pozik"*




bhtor
ofltzero?
gaztemenuak
preziogazteak
TABERNA-BERRI
JATETXEA
Durana kalea 26
Tel.: 943 79 20 67
943 79 49 41
Posta-e:tabernaberri@terra.es
ARETXABALETA
aste buruetarako gazte menuak
egin zure aukera

# Goienka2a

Egubakoitza / 2003ko irailaren 19a

Kultura eta aisialdia

Irailaren 19tik 26ra

# Arrasate eta Mondragon: herri baten aberastasuna, iruditan

Udalatx eta Anboto, eta haren magalean eraiki diren etxebizitza eta enpresak; San Joan jaietako danbor jotzaileak, sua eta haren inguruan ibiltzen diren dantzariak; Arrasateri "herri sarrailagile" ezizena eman zioten lantegiak; industrializazioarekin eraiki ziren etxebizitza-blokeak, baserri-auzoetako etxeekin orpoz orpo… Horiek guztiak eta gehiago biltzen ditu *Arrasate Mondragon-Irudiak* izeneko liburu argitaratu berriak. Izenburuak dioen bezala, argazkiak dira bertako protagonista, eta argazkion bidez, Arrasate aurkeztu gura dio bisitariari liburu horrek.

Ezagutzen ez duenari aurkeztea eta bertakoa denari irudi bilduma txukun hori gerturatzea, horixe lortzen du liburu berriak. Etxekoari eta kanpokoari zuzendutako lana da, eta bere helburu nagusia da guretik kanpokoari Mondragoek duen aberastasuna ezagutzera ematea. Asmo horrekin sortu zuten hainbat herritarrek Arrasate Argitan elkartea, eta elkarte horren taldeko lanaren emaitza da liburua.

**ARRASATE ETA MONDRAGOE**

Joan den astean aurkeztu zuten liburua, Arrasaten, eta salgai dago herriko liburu dendetan. Irudiekin batera, hainbat testu esanguratsu agertzen dira, bai elkarteko kideek, bai eta kolaboratzaileek idatzitakoak ere. Aldi berean, Euskal Herriak atzerriko pertsonaia ezagunengan utzitako inpresioaren berri ematen duten esaldiak biltzen dira.

Horrekin guztiarekin, 163 orrialdetan XXI. mendeko Mondragoeren erretratu oso eta koloretsua eskuratzeko aukera dugu. Erretratu horren aberastasunaren berri ematen digu Joxe Arantzabal arrasatearrak idatzitako aurkezpen testuak: "Ni ere Mondragoen jaio nintzen. Eta orain Arrasaten nabil. Baina nire buruan ez daude borrokan Arrasate eta Mondragoe. Niretzat biak dira modernitatearen ikur". **/15**

LEIRE KORTABARRIA




AZALA: IÑAKI ITURBE


RENAULT SERVICIOS
carrocería rápida
Kolpe txikiak eta urradurak, pitzadurak kristaletan, faroetan, atzerako ispiluetan... Sentitzen dugu hizkuntza hau erabili behar izatea, zure automobilak izaten duen kalte bakoitzarekin zer sentitzen duzun badakigu-eta. Horregatik, carrocería rápidak 24 ordu baino lehenago konponduko ditu, hitzordua eskatu barik, idatziz eta konpromiso barik. Eta hori horrela ez bada, ordezko automobil bat doan. Informazio zabalagoa behar baduzu, deitu 943 712 472 telefonora.
Renault Servicios.
Geldi egon ez zaitezen mugitzen gara.
Badakigu horrek min ematen dizula, eta horregatik 24 ordu baino lehenago konponduko dizugu.
RENAULT Kontzesionarioa
AUTOBERRI
San Andres auzoa, 8 · Tel.: 943 712 472
ARRASATE


EUSKARA IKASTAROAK
Maila guztiak
EGA eta ALFABETATZEA
Matrikula epea: irailaren 26ra arte zabalik!!!
INFORMAZIOA ETA MATRIKULA:
ERDU AEK EUSKALTEGIA
Garibai 14, 3 (Arrasate)
Tel.: 943 77 03 69
arrasate@aeknet.net
AKULU AEK EUSKALTEGIA
Masterreka 13, behea (Bergara)
Tel.: 943 76 05 18
bergara@aeknet.net
UDALAREN LAGUNTZAZ
BEKA SISTEMA
Bai esan?
aek
www.aeknet.net

**LIBURUAK/ ARRASATE, BERTAKOEK ETA KANPOKOEK IKUSITA**

# Arrasate munduari erakutsi guran

## 'ARRASATE MONDRAGON-IRUDIAK' LIBURUA KALERATU BERRI DUTE, KANPOKOEI HERRIA EZAGUTZERA EMATEKO HELBURUAREKIN

LEIRE KORTABARRIA

**Arrasatear guztiondako da *Arrasate Mondragon-Irudiak* liburua, baina baita kanpotik ikusten gaituztenendako ere; hain zuzen, Arrasateren eta, oro har, ibarraren eta Euskal Herriaren irudi zehatzago eta egiazkoagoa lor dezaten. Kalean da liburua joan den astea ezkero.**



ARRASATE ARGITAN

San Joan sua da Arrasateko jaietako ekintza esanguratsuenetako bat.



ARRASATE ARGITAN

Mondragoeri nortasun industriala eman diote bere lantegiek.

Arrasate Argitan kultura elkarteak egin du *Arrasate Mondragon - Irudiak* izeneko liburua, eta joan den astean aurkeztu zuen. Elkarte hori hainbat arrasatearrek osatzen dute —argazkilari, kazetari eta idazleak dira— eta euren helburua da "Arrasateren eta Euskal Herriaren irudi ona munduan zabaltzea; testuz, baina, batez ere, irudi bidez", azaltzen digu elkarteko kide Joxe Felix Diaz de Tuestak. 35.000 aleko tirada egin dute, eta salgai dago, 35 eurotan, Mondragoeko liburu dendetan.

### XXI. MENDEKO ARRASATE

Liburu txukun eta mardula da *Arrasate Mondragon-Irudiak*, eta, elkarteak dioenez eta izenburuan islatzen denez, argazkiak dira protagonista. Arrasateko arkitektura, jaiak, lana, jendea, natura, egoitza esanguratsuak, kaleak… erakutsi nahi izan dituzte. Argazki gehienak iaz eta aurten bitartean egindakoak dira, "XXI. mendeko Arrasate" erakutsi nahi izan dutelako egileek.

Hori bai: irudiak testuz lagunduta agertzen dira, hala behar duenean. Bertakoek eta kanpokoek idatzitako testuak dira. Bi mondragoetarren testuak daude: Joxe Aranzabal kazetariak idatzi du Arrasateren inguruko testu bakarra, eta Juan Luis Azkaratek, bestalde, argazki-oinak idatzi ditu.

Beste lau testu luze ere badaude liburuan, Euskal Herriaren ingurukoak. Bakoitza jatorri desberdineko egile batek idatzi du: hain zuzen ere, Koldo Izagirre, Antonio Alvarez-Solis, Eduardo Manet eta Selma Huxley dira idazleak, eta euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez idatzi dituzte, hurrenez hurren. Azkenik, Euskal Herriaren gainean hainbat aro eta herrialdetako egileek idatzitako testu laburrak ere azaltzen dira. Liburuko testu guztiak, lau kolaboratzaile horienak izan ezik, lau hizkuntzotan agertzen dira.

### KANPOKOEI ZUZENDUTA

Hizkuntza eta ikuspuntu aniztasun horrek badu bere azalpena. Izan ere, *Arrasate Mondragon-Irudiak* liburua bertakooi, baina, batez ere, kanpokoei dago zuzenduta: "Arrasatek aberastasun handia du, esparru guztietan: gizartea, enpresa, kultura… baina gaur egun indar hori ez da inon azaltzen. Arrasatearrok badugu horren berri, baina kanpokoei ere aditzera ematea da gure helburua", azaltzen digu Joxe Felix Diaz de Tuesta elkarteko partaideak.

Filosofia horrekin erabaki zuen Arrasate Argitan elkarteak Euskal Herritik kanpoko hiru idazleri beste hainbeste testu eskatzea: helburua zen kanpoko bisitari eta irakurleei euren jatorria bereko pertsona baten ikuspuntua eskaintzea. "Euskal Herria ezagutu eta maite duten idazleak dira", dio Arrasate Argitan elkarteak.

### GAURKOTU ETA HOBETU

Liburua argitaratu eta plazaratu berri da. 35.000 ale atera dituzte lehen argitalpenean, eta Arrasateko Hire eta Eroskiko liburu dendetan dago salgai, 35 eurotan. Oraingoz, hori da Arrasate Argitan elkartearen proiektu garrantzitsuena, eta, hala izanik, ez da argitalpenarekin bukatzen: "Hemendik urte pare batera-edo zaharkituta gelditoko da; hortaz, gure asmoa da, denborarekin, gaurkotzea eta hobetzea", azaltzen du Joxe Felix Diaz de Tuestak.

Bestalde, etorkizunerako tankera bereko egitasmoei heltzea gurako lukete elkarteko kideek, Arrasate eta, oro har, Euskal Herria ezagutzera emateko helburuarekin. Aukeretako bat izan daiteke Arrasateren gaineko lan monografikoak prestatzea.

## Arrasate-Irudiak

**Orrialdeak:** 163 • **Salgai:** Arrasateko liburu dendetan • **Prezioa:** 35 euro

**Bere 163 orrialdeetan, *Arrasate Mondragon-Irudiak* liburuak lortzen du gaur egungo Arrasateren ikuspegi osoa eskaintzea. Esamoldeak dioen bezala, "irudi bat mila hitz baino adierazgarriagoa da", eta horri jarraitu dio Arrasate Argitan elkarteak. Berrehun argazki inguru dira, guztira; gehienak, koloreetan. Eta herri bateko bizitzaren alderdi guztiak daude islatuta argazkiotan: ikuspegi orokorrak, eraikinak –ez bakarrik balio artistiko handiko eraikinak, baizik eta Arrasateren itxurari bere nortasuna ematen diotenak ere–, natura, baserriak, enpresak eta kooperatibak, ohiturak eta tradizioak, lana… Eta mondragoetarrak eurak ere bai, lanean, jaietan edo eguneroko jardunetan. Argazkiekin batera, testu argigarri trinko bat azaltzen da batzuetan, hori ere, lau hizkuntzatan.**




Liburuaren azala.

**Testuak liburuaren hasieran eta bukaeran du bere tartea. Aurkezpen moduan, Joxe Aranzabal, Koldo Izagirre, Antonio Alvarez-Solis, Eduardo Manet eta Selma Huxleyk idatzitakoak daude; bukaeran, *Euskal Herria atzerritarren ahotan* saila eta Euskal Herriaren inguruko liburuen zerrenda bat.**

**Masterra kudeaketa integralean eta kalitate, ingurumen eta prebentzio auditorietan**

Laneko arriskuak prebenitzeko erdi mailako teknikari titulazioa lortzen da.

**Programaren edukia**

- Kalitatea eta bikaintasuna gestioan.
- Ingurumen gestioa eta teknologia.
- Lan arriskuak prebenitzea. (PRL erdi mailako tekniko titulazioa)
- Gestioan sistema integratua.
- Antzeko teknikak : HHPP, auditoriak, ekonomikoa-finantzarioa…

| | |
|---|---|
| **Lekua:** | Gasteiz |
| **Iraupena:** | 650 ordu (400 ordu eskolan bertan) |
| **Noiz:** | 2003ko urritik 2004ko uztailera arte |
| **Ordutegia:** | Astelehenetik eguenera, 19:00etatik 22:00etara. |
| **Nori zuzendua:** | profesionalei eta tituludun berriei. |

Mutua La Previsora-ren barruan dauden enpresen profesionalek %10eko deskontua izango dute.

LAN-POLTSA ETA ENPRESETAN PRAKTIKAK EGITEKO AUKERA.

ANTOLATZAILEA: DESLAN FORMACIÓN

LAGUNTZAILEA: La Previsora, Mutua La Previsora

**Informazioa eta inskripzioak:**

17:00etatik 20:00etara. Frantzia kalea 21, 1. ezk. A6 bulegoa Tel.: 945 253 405 GASTEIZ
E-posta: deslanformacion@deslanformacion.com / Web orria: www.deslanformacion.com

# Irailak 19–26

**Leire Kortabarria /** Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

## MATRIKULAK

### BERGARA

► **Debagoieneko AEK euskaltegiak** ikasturte berrirako matrikulazio epea zabaldu du. Mugaeguna gaur da, egubakoitza. Horretarako, deitu Arrasateko (943 77 03 69) edo Bergarako (943 76 05 18) AEKra.

## ERAKUSKETAK

### ARETXABALETA

► **Mendi Astearen barne,** argazki erakusketa dago zabalik Pagaldai tabernan, astelehenera arte, hilak 22.

### ARRASATE

► ***Azterkosta* erakusketa** egongo da Monterron kultura etxean, etzira arte, domeka. Astelehenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:00etara egongo da zabalik.

### BERGARA

► **Ageriko 30. Pintura Sariketako** margoen erakusketa egongo da etzira arte, domeka, Beart taldeak antolatuta. Kultura etxean egongo da.

► **Elisabet Eguren** margolari eibartarraren erakusketa dago ikusgai Nahikari tabernan, irailaren 30era arte.

### BILBO

► **Jesus Mari Lazkano** margolari bergarararren antologia dago ikusgai BBK Fundazioaren kultura gelan, Elkano kaleko 20an, honako ordutegian: astelehenetik zapatura, 10:00-13:30 eta 17:00-21:00, eta domeka eta jaiegunetan, 10:00-13:30. Urriaren 4ra arte egongo da zabalik.

### OÑATI

► **Kultura etxeko ikastaroetan** parte hartu dutenen lanen erakusketa zabalduko da gaur, egubakoitza, kultura etxean.

► **Gaizka Mena** marrazkilari arrasatearrak erakusketa du zabalik gaztelekuan, bihar arte, zapatua, 17:30etik 20:30era.

## DEIAK

### ARRASATE

► **Hainbat berbaldi** antolatu ditu Eroski Fundazioak datozen egunotarako. Irailaren 21ean, martitzena, *Komunikazio trebetasunak* delako hitzaldia egongo da; hilaren 22an, eguaztena, *Komunikazioa eta sexualitatea 50etik gorako bikoteetan* delakoa. Biak Monterronen izango dira, 16:30ean.

► ***Emakumea eta mendizaletasuna*** delako hitzaldia egingo du Edurne Pasabanek eguenean, irailak 25, emakume txokoan, 19:00etan. Segidan, Oihulari Klown taldeak *Klownklusioak* saioa eskainiko du.

### BERGARA

► **XXXVIII. San Martn txirrindulari lasterketa** jokatuko da etzi, domeka, 10:00etan hasita. 19-20 urte arteko txirrindulariei dago zuzenduta. Irteera eta helmuga San Lorentzo auzoan izango dira.

### ELGETA

► ***Pangea, bidaia kontinenteen hondora (I)*** ikus-entzunezko emanaldia egingo dute datorren eguenean, hilak 25, Udal Liburutegian, 20:00etan.

### LEINTZ GATZAGA

► **Ludotekarako** begiralea behar da, astelehenetik egubakoitzera 17:00etatik 19:00etara lan egiteko. Euskaraz jakitea eta umeekin esperientzia izatea ezinbestekoa izango da. Deitu 943 71 46 29 edo 943 71 97 67 telefono zenbakietara.

### OÑATI

► **Iñigo Ibarrondo** orain 10 urte hildako mendizale eta espeleologo oñatiarraren omenezko proiekzioa egongo da gaur, egubakoitza, kultura etxeko zinema aretoan, 19:30ean.

► **Kirol azterketak** egiten ditu Athlon-ek martitzenero, Zubikoa kiroldegian, 14:30-18:30. Azterketa egin gura dutenek 943 77 16 77 telefonora deitu behar dute txanda eskatzeko.

► **Hainbat futbol partidu** jokatuko dira bihar, zapatua, Mikel Deunaren XI. areto futbol txapelketaren barne. Kiroldegian izango dira, 16:30ean.

► **XVI. Mountain Bike ibilaldia** egingo dute etzi, domeka. Irteera Zubikoa kiroldegitik izango da, 09:30ean. Proba egunean bertan eman beharko da izena.

► **Mikel Deunaren 26. Eskubaloi txapelketako partiduak** jokatuko dira etzi, domeka, Zubikoa kiroldegian, 10:30ean.

► **XLIV. Nazioarteko Artzain Txakurren Trebetasun Lehiaketa** jokatuko da etzi, domeka, Santa Lutzia zelaian, 11:00etan.

► ***Seme-alabekin euskaraz jolasean*** ikastaroa antolatu du Urtxintxa taldeak. 3-8 urte bitarteko umeen gurasoei dago zuzenduta. Argibideetarako, deitu 943 78 04 11 telefonora.

► **Oñatiko jaietarako Koadrilen Arteko Lehiaketa** deitu du Ixuketan gazte taldeak, irailaren 29an. Gutxienez, sei lagunek elkartu beharko dute taldea osatzeko; taldeko kideek 15 urtetik gorakoak izan beharko dute; eta irailaren 27a baino lehen eman beharko dute izena, Pako edo Aloña tabernetan edo Laixanen.

## IKASTAROAK

### ARETXABALETA

► **Bioenergetika, chi-kung,** autoestimu eta harreman taldea eta zinema eta mitologia tailerrak antolatu ditu Sadhana yoga eta psikoterapia elkarteak. Informazio gehiagorako, deitu 616 96 57 95 zenbakira.

► **Beinke-Loramendi** dantza ikastaroa dago abian, San Migeletarako. Egubakoitzero izango dira eskolak, Kurtzebarri eskolan, 19:30ean. Edozeinek har dezake parte.

### ARRASATE

► ***Tai chi* ikastaroa** egongo da irailean, San Viator ikastolaren egoitzan, martitzenero eta eguenero, 20:30etik 21:30era. Argibide gehiagorako eta izena emateko, deitu 679 64 24 91 telefono zenbakira.

► **Saloiko dantza, eskulan, joskintza eta orratz-lan ikastaroak** antolatu ditu Ekin Emakumeak elkarteak. Horrez gain, Arabara txangoa ere antolatu dute. Ekintzotarako izena emateko, joan elkartearen egoitzara, Pablo Uranga kalera, irailaren 26a baino lehen.

### BERGARA

► **Trikiti Eskola** abian egongo da urritik aurrera, Arrizuriaga jauregian. Soinu eta pandero eskolak emango dituzte. Argibideetarako, deitu 943 76 36 61 edo 943 76 08 19 telefono zenbakietara.

### ESKORIATZA

► **In-line motako patinetan ibiltzeko ikastaroa** deitu du Udalak. Helduei zuzenduta dago, eta urriaren 12an eta 26an eta azaroaren 2an eta 9an izango da, 10:00etatik 12:00etara, herriko pilotalekuan. Izena emateko, deitu 943 71 46 88 telefonora.

► **Hainbat ikastaro** antolatu ditu Amuska emakume elkarteak: hain zuzen, eskulanak, margogintza, ehoziriak (bolilloak), larrua eta oihala apaintzeko ikastaroak. Izena emateko egunak irailaren 22a eta 23a izango dira, astelehena eta martitzena, kultura etxean, 18:00etatik 19:00etara. Hainbat ordutegi antolatuko dituzte.

► **Margo ikastaroa** antolatu du Udalak urritik aurrera, eta izena emateko epea irailaren 25ean bukatuko da, eguena. Horretarako, joan kultura etxera edo deitu 943 71 46 88 telefonora. Matrikula 75 euro kostatuko da.



► ANTZERKIA

## ZURIA, EUROPARRA, GIZONEZKOA, KATOLIKOA ETA HETEROSEXUALA

Aurreiritzien kritika gordina taularatuko du Vaiven antzerki taldeak gaur, egubakoitza, Oñatiko Santa Ana aretoan: *Victor Bevch: zuria, europarra, gizonezkoa, katolikoa eta heterosexuala* du izenburua antzezlanak, eta tragikomedia da, baina baita gizarte gaia duen ikuskizun bat ere, gizartea eta hainbat giza balio erreakzionarioekiko antzezlana. Bost pertsonaia agertzen dira ikuskizun honetan, egunero aurki ditzakegun pertsona arruntak. Baina, bat-batean, bizimodua aldatu egingo zaie, eta lagun horietako bat 'bestea' bihurtuko da, 'desberdina'. Era honetan, besteen aurreiritziak eta balioak jarriko dira jokoan. Antzezlan hau ikusteko txartelak 8 eurotan salduko dira; 6 eurotan, aldez aurretik erosiz gero, kultura etxean.

**Non:** Oñatiko Santa Ana aretoan. **Noiz:** gaur, irailak 19, egubakoitza. **Ordua:** 22:30ean.

koma,
*Erraz ikasten duzun zure hizkuntza akademia*
*IKASTARO BERRIAK URTE OSOAN*
**Ingelesa, frantsesa, alemana, italiera...**
*Apunta zaitez, ORAIN!*
*Umeei bereziki zuzendutako ekintza-programa*

**Olakua 7 behea • 20560 OÑATI**
943 71 82 08 • Posta-e: cursos@komalingua.com • www.komalingua.com



## VII. SAGARDO EGUNA OSPATUKO DUTE BIHAR ELGETAN

Sagardo Eguna ospatuko dute Elgetan bihar, zapatua, irailak 20. Herriko Plaza izango da jai-gunea. Han, Tortilla-Lehiaketarekin hasiko dira ekitaldiak, 18:00etan; segidan, sari banaketa eta tortilla pintxoak egongo dira. 19:45ean, *Boni y la familia Ramírez* antzezlana egongo da; 21:30ean, afaria, sagardotegian; eta jaieguna bukatzeko, 23:00etan, Mal de Ojo eta Kontrairo taldeen kontzertua, gaztetxean.

### OÑATI

► **Hainbat kirol ikastaro** antolatu dituzte irailetik aurrera: aerobika, *fit-bike*, sasoian egoteko gimnasia eta gimnasia terapeutikoa. Bestalde, urritik aurrera, igeriketa eta *aquagym* ikastaroak egongo dira. Izena emateko, jo kiroldegira (943 71 63 75).

## MUSIKA

### ARRASATE

► **Sole N'Kulu-Bulaite Band** taldeak kontzertua eskainiko du gaur, egubakoitza, Jai-Zale tabernan, 19:30ean. Sarrera, doan.

### BERGARA

► **Black Sheeps** taldearen kontzertua egongo da bihar, zapatua, gaztetxean, 23:00etan.

### OÑATI

► **Comando 9mm eta Sorkun** taldeek kontzertua eskainiko dute datorren egubakoitzean, hilak 26, txosnen gunean, 23:00etan.

## JAIAK

### ARETXABALETA

► **Haurren Eguna** ospatuko dute etzi, domeka. Bestalde, San Migelak, herriko jaiak, datorren egubakoitzean hasiko dira, irailak 26.

### ARRASATE

► **Besaide Eguna** ospatuko dute mendizaleek etzi, domeka. 10:30ean hasiko dira ekitaldiak, aipatutako mendian.

### BERGARA

► **San Migel jaiak** ospatuko dituzte datorren egubakoitzetik aurrera, irailak 26, Angiozarren.

### OÑATI

► **San Migel jaiak** hasiko dira bihar, zapatua. Biharko ekintzak honakoak izango dira: 18:00etan, umeen danborrada, Foruen plazan bukatuta; segidan, erraldoiak eta txorimaloak irtengo dira. Etzi, domeka, XLIV. Nazioarteko Artzain Txakurren Txapelketa jokatuko da, Santa Luzia zelaian, 11:00etan.Ordu berean, musika bandak kalejira egingo du, 12:15ean, kiroldegian, eskubaloi txapelketa jokatuko da; 13:00etan, musika bandaren kontzertua gongo da, plazan; 16:00etan, bolo jokoa, San Martinen; eta 19:00etan, dantzaldia, plazan.

► **Artzain Mundua artzainen nazioarteko topaketa** egiten dabiltza Arantzazun, eta bihar, zapatua, azoka egingo dute, Arantzazuko plazan, 10:00etan; 12:00etan, Donostiako Ganbera Koralaren emanaldia egongo da,basilikan.

# Zinema

### BERGARA

■ NOVEDADES

***Última llamada***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Martitzena: 19:30, 22:15.

***Los rugrats***
Zapatua eta domeka: 17:00.

***En un lugar de África***
Eguena, zine kluba: 20:00.

### OÑATI

■ OÑATIKO ZINEMA

***Terminator 3***
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

### EIBAR

■ UNZAGA

***Jeepers creepers 2***
Egubakoitzetik astelehenera: 19:30, 22:15.

***Papá canguro***
Eguner

■ RIALTO

***Un sueño para ella***
Egubakoitzetik astelehenera: 19:30, 22:15.

### GASTEIZ

■ GURIDI

***Abajo el amor***
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

***Piratas del Caribe***
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

***American pie 3: menuda boda***
Egunero: 17:00, 19:45.

***Descongélate***
Egunero: 22:30.

***Jeepers creepers 2***
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

***Human nature***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***Papá canguro***
Astelehenetik eguaztenera: 17:30, 20:00.
Eguena: 17:30.

***Diablo***
Egubakoitzetik eguaztenera: 22:30.

***La liga de los hombres extraordinarios***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

■ MIKELDI ZINEMAK

***Diablo***
Egunero: 17:30, 20:15, 22:45.

***Human nature***
Egunero: 17:30, 20:15, 22:45.

***Confidence***
Egunero: 17:30, 20:15, 22:45.

***La liga de los hombres extraordinarios***
Egunero: 17:30, 20:15, 22:45.

***En un lugar de África***
Egunero: 17:15, 20:00, 22:30.

***Piratas del Caribe***
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

***Descongélate***
Egunero: 17:15, 20:00, 22:30.

***Lara Croft: tomb raider 2***
Egunero: 17:15, 20:00, 22:30.

Martitzena eta eguena, ikuslearen eguna.

■ FLORIDA-GURIDI

***Días de fútbol***
Egunero: 18:00, 20:15, 22:30.

***El buen ladrón***
Egunero: 18:00, 22:30.

***Respiro***
Egunero: 20:15.

***Vidas furtivas***
Egunero: 18:00, 20:15, 22:30.

***El juego de Ripley***
Egunero: 18:00, 20:15, 22:30.

***Identidad***
Egunero: 18:00, 20:15, 22:30.

***Dos tipos duros***
Egunero: 18:00, 20:15, 22:30.

***Las mujeres tienen curvas (J.B.A.)***
Egunero: 18:00, 20:15, 22:30.

■ STER ZINEMAK

***Jeepers creepers 2***
Egubakoitza eta zapatua: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.
Domeka: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45.

***Días de fútbol***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:30, 22:00, 00:45.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.

***El juego de Ripley***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:25, 00:45.
Domeka: 17:30, 20:00, 22:25.

***La liga de los hombres extraordinarios***
Egubakoitzetik zapatura: 18:00, 20:25, 22:45, 01:00.
Domeka: 18:00, 20:25, 22:45

***Abajo el amor***
Egubakoitza eta zapatua: 16:00, 18:20, 20:35, 22:40, 01:00.
Domeka: 16:00, 18:20, 20:35, 22:40.

***Piratas del Caribe***
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 19:15, 22:10, 01:00.
Domeka: 16:30, 19:15, 22:10.

***Identidad***
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.
Domeka: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

***American pie 3: menuda boda***
Egubakoitza eta zapatua: 22:15, 00:30.
Domeka: 22:45.

***Lara Croft: tomb raider 2***
Egubakoitza eta zapatua: 18:25, 22:00, 00:30.
Domeka: 18:25, 22:00.

***Papá canguro***
Egubakoitzetik domekara: 16:15, 18:15, 20:15.

***Doraemon***
Egubakoitzetik domekara: 16:25.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ YELMO CINEPLEX

***La liga de los hombres extraordinarios***
Egubakoitza eta zapatua: 15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.
Domeka: 12:15, 15:45, 18:00, 20:15, 22:30.

***Jeepers Creepers 2***
Egubakoitza eta zapatua: 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.
Domeka: 12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00.

***Escapando de la oscuridad***
Egubakoitza eta zapatua: 20:20, 22:20, 00:20.
Domeka: 12:15, 20:20, 22:20, 00:20.

***Simbad: la leyenda de los siete mares***
Egubakoitza eta zapatua: 16:25.
Domeka: 12:15, 16:25.

***Como Dios***
Egubakoitza eta zapatua: 18:05, 22:15.
Domeka: 12:15, 18:05, 22:15.

***Papá canguro***
Egubakoitza eta zapatua: 16:25, 18:25, 20:25, 22:25, 00:25.
Domeka: 12:15, 16:25, 18:25, 20:25, 22:25.

***Diablo***
Egubakoitza eta zapatua: 16:00, 18:10, 20:25, 22:35, 00:45.
Domeka: 12:15, 16:00, 18:10, 20:25, 22:35.

***Piratas del Caribe***
Egubakoitza eta zapatua: 15:55, 18:40.
Domeka: 12:15, 15:55, 18:40.

***Lara Croft: tomb raider 2***
Egubakoitza eta zapatua: 18:05, 20:20, 22:35, 00:50.
Domeka: 12:15, 18:05, 20:20, 22:35.

***American pie 3: menuda boda***
Egubakoitza eta zapatua: 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.
Domeka: 12:25, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10.

***Abajo el amor***
Egubakoitza eta zapatua: 16:40, 18:40, 20:40, 22:40, 00:40.
Domeka: 12:15, 16:40, 18:40, 20:40, 22:40.

***Días de fútbol***
Egubakoitza eta zapatua: 15:40, 17:55, 20:10, 22:25, 00:40.
Domeka: 12:15, 15:40, 17:55, 20:10, 22:25.

***Terminator 3***
Egubakoitza eta zapatua: 15:55, 20:05, 00:20.
Domeka: 12:15, 15:55, 20:05.

***Última llamada***
Egubakoitza eta zapatua: 20:35, 22:35, 00:35.
Domeka: 20:35, 22:35.

***Confidence***
Egubakoitza eta zapatua: 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.
Domeka: 12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15.

***Los rugrats***
Egubakoitza eta zapatua: 16:20, 18:20.
Domeka: 12:15, 16:20, 18:20.

***Doraemon***
Egubakoitza eta zapatua: 16:35, 18:35.
Domeka: 12:15, 16:35, 18:35.

***Identidad***
Egubakoitza eta zapatua: 16:05, 18:05, 20:05, 22:05, 00:05.
Domeka: 12:15, 16:05, 18:05, 20:05, 22:05.
Astelehena, ikuslearen eguna.

***En un lugar de África:*** ●●● / ***Femme fatale:*** ●● /

ESKASA:● BALEKOA:●● ONA:●●● OSO ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

# KRITIKA

### ABAJO EL AMOR

PUNTUAZIOA: ●●

**ZUZENDARIA:** Peyton Reed
**AKTOREAK:** Renée Zellweger, Ewan McGregor, David Hyde Pierce.

Sarritan, 50eko hamarkadako bukaeran eta 60ko hamarkadako hasierako urteetan Ameriketako Estatu Batuetan egiten ziren komediak telebistan ikusteko aukera izan dugu. Horietako askotan Doris Day eta Rock Hudson aktoreak agertzen ziren.

Orain, 40 urte geroago, Peyton Reed-en eskutik film horien parodia gure pantailetara heldu da. Abajo el amor garai hartako estetika eta osagai ezagunenak erabiltzen ditu: filmaren hasieran urte haietako Zinemaskope ikurra agertzen da, kreditu tituluak, musika, jantziak, orrazkerak edo dekoratuak eta zineman erabiltzen ziren transparentziak (hau da, estudioetan egonda eta aktoreen atzean proiekzio bat erabiliaz kalean egotearen itxura egitea) azaltzen dira. Baina, hori bai, trazu horiek guztiak nabarmenduta eta handituta daude film horien parodia edo omenaldi barregarria izateko. Adibidez, Doris Dayren pertsonaien look-a eta izaera tolesgabearen karikatura oso argia da.

Abajo el amor filmak garai hartako estetika erabiltzeaz gain, film haietako pertsonaia tipo eta egoerak kalkatzen ditu, eta hor datza bere akats nagusia. Agian, lehengo filmak zerbait



